

Antonio Maria Labaien

KALIFORNIA... KU-KU!

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoan irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (III)*, Antonio Labayen.
La Gran Enciclopedia Vasca, 1977

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=276>

KALIFORNIA... KU-KU!

DRAMA
IRU EKITALDITAN

1967ko «Agora»k eraturako
Gipuzkoa-Teatro-Saria irabazi zuana

ITZAURREA

Geienetan, Prologo dalako atari-mintzaldia nere teatro-lanei bukatu ta garbi jarritakoan tajutzen nien. Antzeztokian agertu aurretik; ikusleengandik nola artua izango zan jakin gabe.

Gaiez egokia, luze-laburrean ondo neurtu ta josia ta teatro arauz beste zer nai akatz nabaritzen ote nituan ea aztertzeke. Bakoitzak gere sena bait dugu zer dagon ondo eta zer txarto susmua artzeko, alperrikakoa kenduaz. Nere buruaz uste osoa izan oi dut; nere trebetasunaz fida izan naiz beti. Eta onela, arras gutxitan nere oker eta aurre iritziak zuzendu bear izan ditut. Geienaz utsune batzuek bete, bai, lana borobil-duaz.

Oraingoan nere «*Kalifornia ...Ku-ku!*» dala-ta bere artan ez nion batere itzaurrerik ipiñi. Ta soil-soilik jaio bezela «Agora» batzaldira aurkeztu ta saristatua izan zan. Bere bidea jarrai zezala utzi nion. Era ortan, ez bein baiñan, amar bat aldiz dagoaneko jendearen aurrean antzeztua izan da ta arrererik onena egin diotela, nun nai, esatea, ez zait arrokeritzat artuko.

Erri guzietan txalo-jotze beroak jasoak ditu. Ta giza-jendeak, naiz beko ta naiz goiko; arruntak eta milixkak atsegiñez ikusi dutela neroni nazute lekuko. Eta gezurrezko apaltasunik gabe aitortzea, zillegi zaidala uste dut.

Au, gure Teatro giroan exito tagaraipentzat artu ditekela nago. Antzerkigille batek zer geiago eska dezake bere poza asetzeko?... Eskerrak eman ez guziori, jende xehe ta arruntentzat ez nuke itzaurrea auxe luza bearrik. Baiñan gure jende ikasi ta gazte jakinzaleentzat zerbait geiago erantsi nai nuke, ordea. Nolako asmo izan nuan «Kalifornia... Ku-ku!...» idazterakoan jakin ta irakurtzea gerora onuragarri izan liteke. Amerika aizea dakarki nere antzerki-lanak: itsas-aundiko aizea. Baiñan ain aundi, zabal ta ez berdin izanik Amerika, toki batez izendatu dut: «Kalifornia»... Oso aipu ona ez dizun lurraldea, ta euskaldun eta erdi-euskaldun askoren bizi lekua.

Amerika solasa besterik ez dabil aspaldi Europan. Amerikanotu bear dugula, aiek bezela bizi, aberastu, gauza zaarrak desegin ta purrukatu; siniskeriak zapaldu. Eta ordañez, naste-borraste izugarri batean alienazio berri ta gaitzenak sortuaz... Ontan amerikar dramagille gallentxoek, bai Broadway ta bai Broad-

way kanpokoak, zoritxarrez likiskeri uts ta gizanderi ustelean etzanak daude eta ezin jarrai dezaiegu, nere ustez. Ori aurrerapena ezik atzerapena bait litzake eta aberekerian erortzea.

Problema ta auzi txukunagoetaz, sozial arazo-aren barruan nere antzerki lanean diardut, naiz arin eta azaletik Teatroari dagokion eran. Au ez bait da sermolaritza.

Eta jakiña personajeak beren jokua naturaltasun osoan darabilkite gure familia baten giroan.

Nere adiskide eta teatrozale asko etorri izan zaizkit Teatroari buruzko teoria-lege eta iturbuaren eske: alegia «Antzertia» Teatro artea nola ikasi ditek-en galdezka. Neronek ezin erantzun zeatzik eman bada. Ezer gutxi bait dakit iñori erakutsi al izateko. Alare, nik ikasitako apurretik, aspaldiko urteetan zen-bait idaz-lan aldizkari ta liburuetan agertuarazi ta itzaldi askotan ere arau batzu eman izan ditut. Azke-nik, «Aspaldiko teatrozale bat oraingo teatroaren aurrean» deritzan mintzaldian, gero «Egan»en argita-ratua.

Ua irakurritakoan norbaitek idatzi zidan nere esanak ez zuala gogo betetzen. Polemika geiegi ager-tzen ota nuan eta nere iritziak bestela azaltzeko zion...

Eremu ontan beste askoren antzera eztabaida ta burrukak errez sortzen dirala jakiña da. Beraz, nola gauzak azaldu polemikarik gabe?... Au mami mamitik bait datorkio ta auzia zuritzeko zer-nola ta xeetasun guziak ondo ezagutu bear dira.

Teatroa Unibersidade ta Eskola Nagusietan ikasten dan gaietako bat da.

Alemania, Austria, Prantzia ta Mundu guzian Teatroaren iturburuak sakon erakusten dira ta Doktor mailla agiriak ematen dituzte. Gu, Doktor mailla oieta-tik oso urruti gaudela ikastea ondo dago. Baiñan, esango nuke... ikasi ta gero ez al da onena, bear bada, guzia aztutzea...? Eta bakoitzak barrenak agintzen dion eran teatro lanean jardutea?...

Norberak teatro mota berezi bat ondutzen bait du. Eta norberari atsegin eman eta gogo bete-tzea, besteai ere atsegin emateko baldintzarik bea- rezkoena dugu.

Eraskin au bukatzeko teatro-zaleen artean entzun oi diran «topiko» batzuek aztertu nai ditut. Gaurko antzerki-lanok, mezua, kezka, giarra, koskorra ta «atzaparra» bear omen dute. Eta gañera: «sozia-lak» izan. Ori «pellokeria» da. Ezen, atzoko, gaurko ta betiko teatroak, teatro onak ori bera izan bear du. Ots!

mamitsu izan, tajuz egiña ta... umore duana, erantsi-ko nuke nik...

Beste topiko bat ere badugu ao-betean erabil-tzen dana: gaurkotasuna, obeto esanda: «oraingota-suna». Nik galdegingo nieke: «Oraingotasun ori zertan datza?...». Bertold Brechten «*Galileo-Galilei*» eta «*Mutter Courage*»; Camusen «*Caligula*»; Sartreren «*Les Troyennes*»; Duerrenmatteren «*Romulus der Grosse*». Osbornen «*Luther*» edo beste edozeiñek antziñako Historiaz egindako antzerki lanok oraingota-sunik bai al dute? Bai noski! Gertakariok ez dira gaur goizekoak, baiñan ondo bururaturik eta borobilduak baldin badaude berriak bezin mamitsuak dira.

Adan eta Eve gaia arturik ere oso teatroa berria egin diteke. Aitzitik, azken modako gertakarie-kin teatro oso zarra ta erabat txarra egin.

Gertakariak oraingotasunetik urrutiratzea Teatro-taktika bat da: Brechtek «*Verfremdung effect*» deritzana. Urrutiratze efektoa... Sarritan urru-tikoa bertakoa baño obeto ikusten bait da. Antzerkigi-lleen beste gaitz bat alderdikeriarena da: proselitismo gaitza.

S. Ignazioren gogo-jardunak onak diranik ezin uka: Ezta ere Marxen eta Mao-Tse-Toungen doktrinak

gizarte bizitzara argi berri bat ez dakartenik... Konpor-
me! Baiñan gai orien irrikiz gogoeta luzeetan jardutea
Teatroarentzat gogaikarri da. Ez du teorien menpean
egon bear eta mutil izan, gertakariena baizik.

Bertold Brecht berak, marxtarren eskolakoa
izanik bere «Organon Txiki» deritzan liburutxoan
beste 77 arau artean, guk emen erakusbidetzat jar-
tzen dugun onoko au ematen du:

«3. Teatroaren eginkizuna, beste arte-lan
guziena bezela, beti jendea diberti araztea izan da.
Onek ematen dio bere omen berezia. Ez du besterik
bear jolas-bide izatea baizik. Au nai ta naiezko zaio,
ordea. Ez genduke goragoko mallan jarriko moral ta
zillegigoaren merkatu biurtuko bagenu ere. Ala baledi,
lan emango liguke ez gutxiestea, ezen, hori gertatuko
bait-litzake moral dalakoak jendea jolas araziko ez
balu.

»Teatroaren xedea ez luke izan bear, ezta ere,
onako edo alako zerbait irakastea: alegia, gorputz ala
ispirituaren ibilli atsegiñak baño gauza protxuskoago-
ak irakastea.

»Teatroa, debalde (duarik) datorren gauza
izan bear luke, alperrikako lan orretarako bizi gerala

aitortzen baldin badugu. Jolas-bide ta dibersioak ezerk baño justifikazio gutxiago bear bait du».

Bukatzeko «Unibersidadeak eta Euskera» Zeruko Argian argitartutako artikulo sakon bat aipa nai dut, Gomiga laister Euskalerriko Unibersidadean erakusten asiko dan maisu batena. «Ez da utopia, ez da mitoa, gai guziak euskeraz agertuko diran Unibersidadeaz jardutea». Ni, neu, ez nago ezezkoan, baiñan ez nauzute ain baikor ere. Gazte adoretuentzat ordea, Gomiga jaunak dionez, «ori ez da geiegi eskatzea, baizik bizitzeko aizea eskatzea bezela». Eta gañeratzen du: «Euskerarekin ezin gera erdi bidean gelditu. Guretzat ez da txantxetako ipui bat edo museoan gordetzeko antziñako fosil bat. Guretzat euskera bizitza da. Gure bizitza». Asmo orietaz arras poztutzen gera. Bizitza Teatroaren bidez obekienik erakusten da. Teatro gaiak euskal Unibersidadean erakusteko liburuak bear ditugu. Eta asiera emateko «Euskal-Teatro Iztegi» bat elkar ondo adi dezagun. Lexiko ontan bat etortzea da lenengo, gero aurrera jarrai dezagun. Onengatik liburutxo onen azken alde-ra geigarri bezela Euskal Teatro Iztegi gai bat argitaratzen dugu Euskaltzaindiaren ardurapean osatua.

Eta au aski ez dala Teatro-Bibliografia labur bat, ez antuste ta jakintza arrokeriaz emana baizik euskal teatro-zaleen gosea gai ontan asetzearren.

Bibliografia ortan, lenengo, nik ezagutzen ditudan argitara gabeko esku-lan, manuskritoak ipiñi ditut. Ondoren aldizkari ta errebisten izenak. Eta azkenik liburu ta liburuxkak, aurretik egilleen izenak, nun eta zer urtetan argiratuak izan diran emanaz. Unibersidadeko goi-mailla irakaskintzarako ezer gutxi da; luza zitekean geiago. Baiñan asiera emateko aski. Era-kus dezagun Teatro alorrean, ere euskaldunok ez gaituzula ain atzerati, ezjakin ta sasi...

Gure txikian, illunpean, lotsa-lotsa eginda egonarekin ez dugu ezer aurreratzen.

Garaia da Teatroan ere Detxeparek kilika gindun bezela dantzara ta plazara jali gaitezen.

JOKU-LAGUNAK

MARKOS: Lantegiko kontra-maisua 55/60 urte.

AGUSTIÑE: Markosen emaztea.

LIERNI: Bien alaba nagusia, marats eta zentzuduna.

D. KARLOS: Lantegiko nagusi-orde ta kontuartzallea.

SIMON: Mekaniko gaztea, Markosen laguntzallea.

MIRARI: Markos eta Agustiñeren alaba gaztea, buru arin eta ergela.

XANTI: Bien seme bakarra, gazte ajolakabea «Yeye» dalakoa.

Mr. SIMPSON-HIRIART: Kaliforniako ipar-amerikarra, ama euskaldunaren seme.

MARGO: D. Karlosen emaztea.

JOXEPA: Markosen lengusua baserritik etorri berria.

Jarduna gaur egunekoa Euskal Erriako edozein lekuan.

LENENGO EKITALDIA

(Lantegiaren aldamenean dagon Markosen etxe barruko gela bat bizi-leku dutena. Goi mallako apaindurik gabea baiñan ondo ornitua. Xeetasun askotan eta gero jardunean Agustiñe etxekoandrea aundinahi dala igartzen zaio.

Aitizitik, Markos senarra, gizon apal bezin lagille trebe ta burutsua. Lantegitik etorri berri da, beargiñen soñeko urdiñez jantzia eta eskuak zikin. Txukuntzera doa afal aurrean zerbait jateko asmoz. Andrea zai zeukan bere arrenkurak esateko).

AGUSTIÑE: Emendik aurrera diru geiago beharko dudala esan dizut. Jaboiarentzako diña ere ez duzu ateratzen...

MARKOS: *(Soseguz)* Atzo ere asterokoaz gain milla pesetakoa eman ez nizun bada?... Datorren larunbateraño aski izango zenulakoan nengon.

AGUSTIÑE: (*Destañez*) Aski? aski?... Zu pikopean bizi zera gizon! Ez dakizu asto-asto lan egiten besterik. Eta ez zera konturatzen gauzak zer kosta diran.

MARKOS: Orixe egia! Ez dakit nola txautzen duzun dirua ain «parra-parra».

AGUSTIÑE: Ez duzu esango beintzat nere buruarekin asko gastatzen dudanik! Ezer erosten al dut bada neretzat? Soñeko berri bat egiteko beldur naiz-eta. Jatena erosi eta gero, seme-alabentzat behar dut guzia. Mutillak batxiller bukatzea nahi badugu eta neska bien kolejioak ordaindu, gora dijoaz kontuak: liburu, matrikula ta abar...

MARKOS: Bai, onuzkero naikoa ikasi dute. Ta aurtengo kursoa bukatutakoan, lanean asi ditezela. Ez dago beste erremediorik.

AGUSTIÑE: Prantsesa ta inglesa mintzatzen ikastea ondo letorkie... bada ezpada, alabai. Ta musika dantza berriak... gitarra-ta.

MARKOS: (*Zakar*) Baita zera ere! Lanegin asita gero beta geldiko zaie gogorik baldin badute. Nere laneko irabaziak ez dira orrenbesteraño irixten. Gure sakela ez dago joria zuk isil poltsarik ez baduzu beinik bein. (*Zakar*) Ez zaidazula gitarrik

geiago aipatu. Betiko lelo zoroa! (*Sukalderuntz doala eskuak garbitzera*).

AGUSTIÑE: (*Isilune baten ondoren malkoak txukatuaz*)

Gu baño geiago ez diran etxe askotan, seme-alabak nola jantzi, bizi ta dabiltzan istudiotan ikustekoa da... Telebisio ta guzti... Eta gu berriz... Markos!

MARKOS: Naikoa dugu gitarrarekin! (*Sukaldetik itzulirik eskuak garbi egiñik zapiaz legortuaz*)

Nik ez dakit beste etxeen berri, Agustiñe, baiñan, nik bein lanetik atera ezkerreko eskuak garbi gorde nai ditut... eta buruan kezkarik ez.

AGUSTIÑE: (*Losintxaz*) Ori ez dago gaizki, Markos, baiñan zuk dituzun esku ta buruarekin «aspirazio»

aundiagoa beharko zenuke... Ugazaba... nagusi izatekoa eta ez besteren mende egon ainbeste urtetan...

MARKOS: «Aspiradora» naikoa zaitugu... Ain gaizki al

gaude bada?... (*galaiki*) Apain eta eder ikusten zaitut. Lierni aurrera aterako dala badakit; Mirari ta Xantik emango dizkigute lanak...

AGUSTIÑE: (*Lausenguz*) Lagundu egin bear zaie. Gu

baño gutxiago diran familiak gora igo dira. Eta nola? automobilla ta neskamea dutela.

MARKOS: Zorrak ere alakoak dituzte batzuen batzuk...

Gu gere bidetik ondo goaz.

AGUSTIÑE: Bai, atzera geldituaz aurreruntz joan beharrean...

MARKOS: Orain beintzat larunbata dugu ta utzi nazazu lasa arnasa artzen. Bigarko nere arrantza tresnak: amu garranga, txitxare ta gañerakoak gertu jartzera noa.

AGUSTIÑE: Igande ta jai egunez beti bakarrik zabiltzala egokiera gutxi izango duzu langille mallatik ateratzeko.

MARKOS: Nagusi ta jauntxuok jai egunez ere nere billa etortzen badakite.

AGUSTIÑE: Komeni zaienean bai, noski, zuri lan eragin arazteko, zure bearrean diranean.

MARKOS: Bigar, beintzat, deskantsuan utz nazatela. Mendi ta errekako aize presko ta garbia artzeko egarri naiz. Eta bizikletan eta oñez ibiltzeko gogoia daukat.

AGUSTIÑE: Izarditu ta alperrik nekatzea da hori, ta gero oztu-ta gaxotzea... Automobil txiki bat bazendu neroni ere joango nintzaizuke laguntzera...

MARKOS: Zuk ez duzu ibilli nai lau kurpillen gañean izan ezik, ta gañera apain-apain eginda, otordu on bat ostatutan janez...

AGUSTIÑE: Zer bada? ... Oñez malda gora lertu ta gero puska legorra artzeko, naiago dut etxean gelditu patxaran...

MARKOS: Ez dizut ezetzik esaten. Zure gustoa errespetatzen dut. Utzi bada niri nerea. (*Barneruntz abiturik*) Nere gutizia merke da ta asetzera noa. Ea zertan diran nere txitxareak... Ez da mokau galestia...

AGUSTIÑE: Au naska! Gorde, gorde zuretzat!... Nik ez dizut neretzat ezer eskatzen, baiñan zure seme-alaben etorkizunari geiago begira bear zenioke-la, bai!

MARKOS: Aste guzian ez dut egiten zuentzat lanean ari besterik... (*Bijoa*) Igandea nere eguna da.

AGUSTIÑE: Au lanbidea! Nere gizona beñere ezin bere ortatik atera araziko dut.

LIERNI: (*Kaleko atetik datorrela sarturik, galtzarbean kartera daramakila*) Arratsalde on amatxo! (*berarengana musu ematera joanez*).

AGUSTIÑE: Aguro etorri zera, Lierni! Gaur Parrokia-etxean ez al zenduten billerarik?

LIERNI: Ez ama! Larunbatetan elizkizuna izan oi dala badakizu ta bereala bukatu da. (*Kartera utzi ta etxeko moduan jarriaz*).

AGUSTIÑE: Nun gelditu da Mirari?

LIERNI: Zinera joatekoa zala uste dut.

AGUSTIÑE: (*Gaiztoz*) Ez zan bakarrik joango, ez.

LIERNI: Ez dakit, lagun asko ditu-ta...

AGUSTIÑE: Bai, eta konbidatzen dutenak! Ez da galduko ez, Mirari. Zure aizpatxoarekin joaten asi bearke duzu. Zure aitarekin ez bait dago iñora joaterik. Ez aste eta ez jai egunez.

LIERNI: Lanetik nekaturik etortzen da eta naiago izaten du etxean egotea. Igandetan, berriz, amorraketara joan ezkerre, pozik. Bigaroko ere asmo orretan izango da.

AGUSTIÑE: Zuk lagundu bearke diozu... zu ere bakar-zale zaitugu-ta.

LIERNI: Ez banu beste zeregiñik gogoz lagunduko nioke. Mendi ta erreka gora ibiltzea atsegin zait. Eta amorrai ta eskalluak amuan arrapatzea gauza polita da.

AGUSTIÑE: Bai, busti-busti egin eta otzez pasaturik etxeratzea oso osasungarri.

LIERNI: Arrai prexkoa jatea gustagarri zaizute bada...

AGUSTIÑE: Zuen eskalluok ba al dute bada ezurra besterik? Barruak garbitzen ematen duten lana geiago da...

LIERNI: Ez zaiozu hori esan aitatxori. Ark duan tirria!

AGUSTIÑE: Bai, orain ere or dozu amu, garranga ta txixareak zaitzen! Au naska!

LIERNI: Zerbait nai ote duan galdegitera noa...

AGUSTIÑE: Lendabizi merienda ar zazu. Or sukaldeko mai gañean utzi dizkitzut esne, txokolate ta ogia.

LIERNI: Ez naiz gozozalea ta eguerdian «frigorifero»n gelditu dan aragi-zerra jan naiago dut...

AGUSTIÑE: Alako gose al zaude? Xantirentzat gorderik neukala badakizu. Bazkaririk ez du egin eta...

LIERNI: Beti mutillentzat! Lenago etxera etortzea zuan! (*Bijoa*)

AGUSTIÑE: Onak zaudete oraingo neskak «eskallu» utzez mantentzeko. Ez dut sortuko zuek asetzeko aña. Berriz ere aitari dirua eska beharko diot. (*Ateko tinbrea entzun bedi: «txiirrin txiirrin...»*) Dendako mutilla izango da. (*Atea irikitzero bijoa*) Banoa!

*(Atea zabaldukoan fabrikako nagusi-
orde ta kontuartzalle dan D. Karlos ager-
tzen da. Agustiñe, uste gabeko agertze
ontaz arduratzen da bere burua ederre-
tsirik).*

D. KARLOS: Ni naiz etxeoandre! Ez larritu...

AGUSTIÑE: Ez noski! Aurrera D. Karlos (*elkar agur-
tuaz*).

D. KARLOS: Zer modu Agustiñe?

AGUSTIÑE: Oso ederki, eskerrikasko! Zu eta Margo ere
bai agidanean?

D. KARLOS: Ondo esan beariko. Ez dugu okerrik.

AGUSTIÑE: Ala obe! Poztutzen naiz.

D. KARLOS: Markos etxean izango dala uste dut.

AGUSTIÑE: Bai, jauna, bai. Oraintxe etortzea egin du.
Sar zaite, sar, atean gelditu gabe (*sarturik*).

D. KARLOS: Bada... fabrikatik ustegabe atera zait eta
ajola aundiko gauza batez itzegin bear diot, pre-
saka gañera, naiz larunbata izan.

AGUSTIÑE: Berarentzat jai bezperan ez da amorraiak
baño ajola aundiagoko gauzarik... Eseri zaite
ordea!

D. KARLOS: Zutik itxoingo diot...

AGUSTIÑE: Emen zaudela otsegingo diot. Or dago barruan bigarko tresna ta amuak gertutzen...
(*Barrura daraman atetik oiu egiñez*) Markos!
Atoz! ...

D. KARLOS: Barkatu zuen etxeko gora-beheretan ain desgaraiz nastutzera erori banaiz... Behar bada senar-emazteak kalera itzuli bat egitekoak izango ziñaten...

AGUSTIÑE: Baita zera!... Nere senarrarekin ez da errez etxetik atera ta iñora joatea. Eta kalera gutxia-go...

D. KARLOS: Bada. Markos arro-arro onelako andre ederra alboan duala agertu diteke...

AGUSTIÑE: (*Anpaturik*) Eskerrik asko zure «loreengatik», D. Karlos. Nere senarra ez da zu bezelakoa. Aren baratzean ez da eztililirik sortzen...

D. KARLOS: Ez uste izan hori Agustiñe! Aren baratzan loreak ez ezen frutu ugariak onduko dira. Markos ez da edozein eta orain du okasioa oso goraigo ta famili guzia altxarazteko... Suertea ta egokiera eskura datorkio.

AGUSTIÑE: (*Interes ta jakin naiez kilikaturik*) Ez dakit... bada. Eseri zaite, eseri! (*Urduri berriz barruko atetik otsegiñez*) Markos! (*D. Karlosi*) Beldur

naiz ez ote dugun beñere bere zulotik atera al izango...

D. KARLOS: Emazteak asko dezazuteke... Eta zu bezelako andre batek areago...

AGUSTIÑE: Neregatik ez da atzean geldituko. Ez orixe!
(*Berriz atetik oiuka*) Markos! Markos! Nun sartu zait gizon ori! Baratzara joango zan alabarekin «txitxare» billa...

D. KARLOS: Txitxareak?... Ar zikiñak! urrea, dirua, eskura datorkiokenean...

AGUSTIÑE: Pozikago dago ua amorrai bat amuan arrapatzen duanean ontzako urrea balukean baño...

D. KARLOS: Aberastu dedinean arrantzara ere jua al izango da. Nai duan egunez eta nai duan tokitara...

AGUSTIÑE: Berri-miña sortu didazu D. Karlos. Ez dakit zertaz diarduzun... Loteria eskeintzen al diozu ala?...

D. KARLOS: Ezin esan dizut berak jakin aurretik... Markosek baietzkoa eman dezanean, orduan itze-gingo dugu...

AGUSTIÑE: Jakin-naia sortu didazu ta dagonerako luzeiritzirik nago. Banoakio billa ea ekartzen dedan... (*Espaz*) Eta ni aurrean ez nagola lasa-

go mintza zaitetzen, bakarrik utziko zaituztet.
(*Abiaturik*).

D. KARLOS: Zuk nai duzun bezela! Zertan gelditzen geran laister jakingo duzu. Etxea betetzeko aña zorion bidean jarri-ta baiezkoa emango ote dit! Baldin baite!

AGUSTIÑE: Nere senarra ezezkoa ematen ere mutilla da bada... (*Doalarik*)

D. KARLOS: Ez dut uste! (*Gaiztoz*) Gizonek... azkene-rako andreek nai duzutena egiten bait dugu. (*Une batean D. Karlos bakarrik gelditzen da antzeztokian, batetik bestera dabillerarik bere buruari itzegiñez*).

MARKOS: (*Bat batean sarturik*) Zer zabilta garai ontan gure etxean?... eta kezkatu ikusten dudanez.

D. KARLOS: Presako gauza da-ta billa etorri natzaizu. Fabrikan itzegin nai izango nizun baiñan ni oartu gabe alde egin didazu.

MARKOS: Bai, gaur oi baño lentxeago atera nazu, bigarko nere arrantzako aparejuak gertutzearen. Guziok eroaldi zerbait izaten dugu ta hori da nirea.

D. KARLOS: «Afizioa», inglesekin «hobby» diotena.

Oraingoan ordea beste «hobby» pozgarriagoa eskuratu bear dizut, amerikanoa, gañera, zure amorraiak aztu araziki dizuna... ugazaba..., nagusi izatea...

MARKOS: Zera... aspaldi amerikanoekin darabilkizun arazoa al da? Eta nik amerikanoekin lantegi berrian muturra sartzea zuk nai?

D. KARLOS: Hori bera ain zuzen: muturra, lepoa ta gorputz osoa. Orain dugu nagusi, ugazaba izan ta aberasteko egokiera...

MARKOS: Bigar nere gisa ibiltzen utz zaidazu beinik-bein... jai-egun arrantzale ta astean bein, bearra aztutzen, langille... Astelenean itzegingo didazu.

D. KARLOS: Ez Markos, ez, ez dago beta galtzerik. Begira (*kartera aundi batetik paper-orri pilla atereaz*) Mr. Simpson-Hiriart euskaldun amerikanoak gaur bertan bidali dizkidan kondizio ezin obeak... Ikusitazu ikus! (*paperak emanaz*)

MARKOS: Nik? ... (*begiratu nai ez eta...*) Ez dut betaurrekorik gizona... ta gañera ez betarik... eta ez gogorik... Andreari erakutsiko dizkiot...

D. KARLOS: Ondo derizkiot. Gaur gauean irakurri itzazute, Mr. Simpson-Hiriart bigar dator gurekin itzegin eta erabaki bat artzera.

MARKOS: Niri igandea alperrik galdu araztera! Aspaldi ez bezelako giroa dago amorratarako, ta etxean gelditu bearra ere...

D. KARLOS: Bestela ez zera beñere mekaniko ta kontra-maisu triste bat izatetik aterako; eta ez da ni ere oraingo gure Soziedadearen mendetik... Besteentzat lan egitez asperturik nago nagusiak aberastutzen diran bitartean.

MARKOS: Egia aitortzeko, niri orain arte eskaturiko saria eman didate. Eta lanak ez nau ikaratzen...

D. KARLOS: Gutxirekin konporme zaude-ta. Ez dakizu zure burua baliarazten. Sozialista izatea gezurra dirudi... Ni ezkerrekoa nazu ta langilleen eskubide guzien aldekoa. Mr. Simpson ere oso demokrata omen da ta bigar datorren ezkerre biok arpegi eman bear diogu ta ez ni bakarrik utzi... *(Markos isilik eta zalantzan dagola oarturik, ekiten dio berriz)* Ori ez da gizon izatea ta ez sozialista fina; eta are gutxiago zeorren familia-
ren etorkizunari begiratzea.

MARKOS: (*Bat batean asarreturik*) Ori ez didazu bi aldiz esango. Gogorik gabe ere, geldituko naiz. Nere familia, langille-anaitasuna ta gizarteko justizia ta sozialismoa ez ditut beñere ukatuko.

D. KARLOS: Ez nuan zugandik besterik uste. Eskuz bezenbat buruz ere azkarra zera ta aurrera joango gera. Bigar goizeko amaiketan Majestic Hotelean itxoiten izango dugu Mr. Simpson-Hiriart hori. Bere paper eskutitz eta tratu-gaiak emen uzten dizkitzut azter ditzazun (*mai gañean lagarik*) Inglesez daude geienak...

MARKOS: (*Gainbegiratuaz*) Nere alabak itzuliko dizkit eta gauza garbia baldin bada, komeni zaiguna... ikusiko dugu.

D. KARLOS: (*Pozik Markos bereganatu dualako*) Ez du damurik... batere arriskatu gabe negozioa eskura datorkigu ta sozio egiten gaituzte, arnerikanoekin erdibana... eta soldata lenago alako bi... Dei egiezu dei! zure emazte ta alabari berri ona jakin dezaten. Zere aotik entzun dezatela. Ni lanpeturik nago eta ez daukat geiago luzatzerik...

MARKOS: Itxoin zazu pizka bat (*Barrura joateko atetik otsegiñez*) Aiñe! Lierni! Atozte lehenbaitlen. Karlos badoa eta agur egin nai dizute.

D. KARLOS: Eta seguru nago gure asmoa ontzat artuko dutena. Eta zure andreak batik bat negoziotako begi-luzea du eta ez dizu ezetzik esango. Garantia osoaz sartzen bait gera. Bigarko eguna guzientzat egun aundia izan diteke...

*(Agustiñe sartzen da lendabizi,
eta geroxeago Lierni).*

AGUSTIÑE: (*D. Karlosi*) Ba-al zoaz ain aguro? Itzetik ortzera besterik esateke uzten al gaituzu?...

D. KARLOS: (*Eskua estutuaz*) Bai Agustiñe, albisteak senarrak esango dizkitzu poztu zaitezten. Niri zeregin askotxo gelditzen zaizkit eta banoa.

AGUSTIÑE: Onek (*Markosengatik*) ez bait du itz geiegi-rik egingo.

MARKOS: Bear diranak esatea naikoa da. Amerikanoak eskeintzen digun negozioa ez dakit nola irtengo dan... baiñan bigarko nere arrantza txangoa zapustu didatela, bai beintzat. Kaxo nere amorraiak!

D. KARLOS: Ordañez dolarrak badatoz ez dago gaizki!

AGUSTIÑE: Ori esan ori! Dolarrak! (*Lierni sarturik*)

LIERNI: Zer da diru soñu ori?... Zer gertatzen da?

AGUSTIÑE: Aurren aurrena ezer galdetu barik D. Karlos agurtu zazu.

LIERNI: Arratsalde on jauna! (*eskua luzatuaz*) Zer modu?

D. KARLOS: Zu bezelako gazte atsegiña ikusiaz ondo, noski!

LIERNI: Eskerrikasko beorrek ala uste badu.

D. KARLOS: Zuka itzegiten badidazu nere burua gazteago arkitu dut...

AGUSTIÑE: Umore ona izan ezkerro beti da gizona gazte...

D. KARLOS: Gaur bai beintzat, eta zergatik dan esango dizuet etxeko nagusiak baimenik ematen badit...

MARKOS: Emakumezkoak jakiteko irrikitzen jarri dituzu eta esaiezu lenbaitlen, nik baño obeto daki-zu-ta...

AGUSTIÑE: Eserita erosoago esan eta entzungo dizugu guk ere. (*Mai inguruan eseriaz*)

D. KARLOS: Bada itz gutxitan auxe: Kaliforniako American Mechanical Corporation (*A.M.C. ei-mi-ci*)

deitutakoa aspaldidanik dabil emen lantegi berri bat eraiki naiez eta zuen Markos eta ni soziotzat aukeratu gaitu eskeñi oparoa egiñez. Jaun au, (*Markosengatik*), injeniero batek baño geiago dakina «tekniko» bezela eta ni zuzendarri jerente gisa... Zer derizkiotzute?

AGUSTIÑE: (*Arin*) Ez dala ezetz esatekoa...

D. KARLOS: Bigar Mr. Simpson-Hiriart amerikano-euskalduna etortzekoa da elkarrekin izketaldi bat egin dezagun gauzak erabaki ta izenperatze-ko... Euro-Majestic Hotelean itxoin bear diogu.

AGUSTIÑE: Ederki! Ea antolatzen zeraten. Eta eragozpenen bat sortzen bazaizute ere, joan eta entzunez ez duzute ezer galtzen.

MARKOS: Nik bai, nere lasatasuna... Bigarko arrantzatresna guziak txitxare ta guzi gerturik neuzkan... Errekako urak ere neurri onean daude.

AGUSTIÑE: Urak, gero ere bere bidetik joango zaizkitzu, eta erabat amorraiak.

LIERNI: Bai, aita. Ez izan ardurik, tresnak nik txukun jasoko dizkitzut beste egun baterako.

D. KARLOS: Ikusten? (*Markosek bekozko illuna duala oarturik*) Guziok erreztasunak ematen dizkitzu-

te ta, alimo! Txitxareak ere bizitzea merezi dute.

AGUSTIÑE: Ori esan!

D. KARLOS: Bigar Mr. Simpson ezagutuko duzu ta amorraiena baño negozio seguruagoa dakarkigu, nere ustez.

MARKOS: Dirua nundik atera izango ditugu kontuak...

D. KARLOS: Emen proposizio-agirian garbi jarria dago. Ez kezkarik izan, bestela ez nintzan sartuko. «American Corporation» dalakoak asiera emateko kapitala jartzen du. Eta gero onen kreditorekin Bankoak gure zatia emango digute...

MARKOS: Banko etxeek duanai dirua aurreratzen diote eta ez arlote ezerezai.

AGUSTIÑE: Zere burua lotsaz apalegi egiten baduzu beti atzera geldituko zera. Besteek aberastuko dira ta ez gu.

D. KARLOS: Zure andreak arrazoi du. Bigar amaiketan billa etorriko natzaizu.

MARKOS: Bearko joan! Guzioen artean esitu nazute, ez daukat igesbiderik. Joango naiz bai!

LIERNI: Bai aita, zoaz!

D. KARLOS: Orain gauza bat: emen aitaturakoa ez da komeni iñun esatea kontratua egin arte. Eta gero ere egun batzuetan isilik egotea obe.

AGUSTIÑE: Guk ez dugu berririk zabalduko. Egon lasai.

D. KARLOS: Errian ez dezatela ezer jakin...

MARKOS: Eta gure fabrikako nagusiek gutxiago. Bestela...

AGUSTIÑE: Badakizu Lierni. Ez eta etxean ere. Anai-aizpari itzik ez!

LIERNI: Nik berriak isilpean gordetzen badakit.

D. KARLOS: (*Ordularia ikusiaz*) Telefono-konferentzia eskatua dut ta berandu aurretik uzten zaituet (*jeiki ta abiturik*) (*Markosi eskua emanaz*) Bosteko ori Markos! zu zaitugu gizona ta! Paperak emen uzten dizkitzut gaur gauean ikus ditza-zun. Alabak inglesa itzuliko dizu (*paperak lagaz*).

LIERNI: Pozik gañera!

D. KARLOS: (*Agustiñe ta Lierniri esku emanaz*) Arratsalde on guziori! (*Dijoalarik*)

AGUSTIÑE: Baita zuri ere. Zoaz ondotxo! (*Ama-alabak ateraño lagundurik*) Eskerrikasko egiten ari zeranagatik. Eta emazteari eskumuñak...

D. KARLOS: Emango dizkiot! Bigar arte (*Bijoa*)

LIERNI: Agur bai, eta adio!

AGUSTIÑE: (*Maitetsu oso kezkatu gelditu dan Markosi*)

Ea bigar adoretzu ta itxura onez azaltzen zeran amerikanoaren aurrean... Ugazaba moduan...

LIERNI: Igandetako traje berriarekin iñor baño apañago zaude...

MARKOS: Lanerako soñeko-urdiñarekin ere alatsu da bai. Zer uste dezute, amerikanoa sastre-modelu billa datorrela ala? ... Dirua irabaztera. Zera! «moni» «moni».

LIERNI: «Time is money» Otsa ala da: dirua!

AGUSTIÑE: Bai, baiñan jende arlotearekin ez dute olakoak jardun nai izaten...

MARKOS: Baita! Eskuak ondo garbituko ditut, ator zuria jantziko dut korbata ta guzi eta ezkontza eguneko traje beltza ere bai, barruan sartzen banaiz beintzat...

AGUSTIÑE: Beltzez jantzita iñondik ez!

LIERNI: Obeto legoke «sport» txaketa berriarekin.

MARKOS: Zorotzat artu al nazute. Ea arrantzara alde egiten dudan azkenean... (*Barneruntz abiturik*).

AGUSTIÑE: Zu isilik zaude, Lierni! Nik aterako ditut arasatik bear dituan arropak... Zoaz eta «buta-

no» piztu zazu aparitako ura bero dedin. Aditzen? Eta geldi zaite emen.

(Senarraren ondoren barneruntz doalarik).

LIERNI: Bai ama! *(Sukaldetxo dagon lekura doa amak esandakoa egitera. Lan ortan diardula, norbait nabaitzen du ate joka)* Atea zan!... Nor ote da? Noan ikustera. *(Ateruntz joan eta zabaldurik)* Zu al zīñan Simon?...

SIMON: *(Atetik sarturik)* Ni, bai! Zure aitaren billa.

LIERNI: Alditxo bat bada etorri zala. Or barruan da aparirako zerbait txukuntzen. Ea ez diote eskuak garbitzeko betarik eman eta...

SIMON: Ez dedilla bada, alperrik txukundu. Mandrina-dora berri aundia gelditu zaigu ta poto egiñik gaude. Ez aurrera ta ez atzera. Automatikoa ez dabil ta berriz ere eskuak zikindu bearko ditu abiarazteko...

LIERNI: Nun dira injenieroak?... gure aita beti ari behar... Ez diozute pakean uzten ez fabrikan eta ez etxean dagonean... Ezta loegiten ere!

SIMON: Jerente nagusiak bidali nau. Bestela gau-lan guztia atzeratzen zaigu. Oraindik lotarako goiz dala-ta.

LIERNI: Bai, baiñan berandu larunbat arratsaldean lanean aritzeko... Aste inglesaren ordezt... aste amerikanoa al duzute edo zer?

SIMON: Zure aita da makina antolatu dezaken maisu bakarra eta Enpresak ordainduko dio. Beraz, arren, Lierni, zoaz eta esaiozu, nagusiaren partez, bereala fabrikara joan dedilla.

LIERNI: *(Barruko-ateruntz abiturik)* Aita! zure billa datoz! Bai! *(Itzuliaz Simoni)* Beraz, ez da beste iñor lan ori egin dezakenik...

SIMON: Zure aitak sortutako makina bait da eta bost minutuan martxan jarriko dugu. Eta an daudenak berriz bost orduan ez dute asmatuko...

AGUSTIÑE: *(Agertuaz eta gero Markos ondoren)* Zer da? zer da?

SIMON: Zera, makina berrian aberi gaitza dutela eta...

AGUSTIÑE: Makurra zuzentzeko nere senarrak lan egin dezala.

SIMON: Berak egindako «xistima» berriko erraminta bait da, ta maisuak ez badagi alperri galduko dute...

MARKOS: Eta zer egiten du an dagon makinistak?...
Orrenbeste eskola ta ixtudio ta nik behar al dut beti gañean...

SIMON: Nagusiak esan dit zuri deitzeko, bestela automatiko barautzak apurtuko dituztela. Ubela jarrita kurpillak abiadura izugarria artzen du...

MARKOS: Eta ez al dakite txirrikarik aldatzen?...

SIMON: Ardatza puskatzeko beldur dira, ordea...

MARKOS: Hori behar diagu! Baniak, baniak astakeriren bat egin ez dezaten. Ez banoa okerrago izango bait zait. *(Abiatuaz Simonekin)* Bereala naiz emen.

AGUSTIÑE: Betikoa! Lanik astunena zuretzat egunez eta ordutik kanpora. Eta irabaziak besterentzat.

MARKOS: Zaude isilik eta pakean utz nazazu. Zer dan badakit eta laister itzuliko natzaizute. Goazen!
(Bijoaz Markos eta Simon)

AGUSTIÑE: Ni ere aita itzuli bitartean arategira noa. Ezin bait da pio bidaltzen duanarekin. Neronek ikusita ekarriko dut biarko enkargatuak nituen xeerrak... Zarpillak sartzen dizkitzute ez bazau-
de erne.

LIERNI: Ni joango naiz billa nai baduzu, ama!

AGUSTIÑE: Ez, zu geldi zaite etxean sukaldea zaintzen eta norbait ote datorren begira.

LIERNI: Mirari ta Xanti ez dira berealakoan etxeratuko ez. Bagaudeke lasai.

AGUSTIÑE: *(Kaleruntz abitzeko jantzi zerbait bizkar gañera botiaz)* Xanti mutilla da ta gaitzerdi. Baiñan zure aizpa hori ez dakit zer dabillen. Beti berandu etxera! *(Bijoa)*

LIERNI: Mirari laister elduko da zinetik. Baiñan Xanti? auskalo! Larunbata parranda eguna du, ta noiz ez? dirurik baldin badu beintzat... «Butanoari» indarra kentzera noa. *(Bijoa sukalderuntz eta bidenabar an mai batean dauden ontzi ta pus-kak antola bitza. Ontan ari dala, Mirari aizpa oarkabe sar bedi).*

MIRARI: *(Aizparengana bertaratu ta belarrira oiu egiñez)* Gabon!

LIERNI: *(Izuturik burua itzuliaz)* Au da ikara! Zu al ziñan? Nundik sartu zera? Ez naiz konturatu...

MIRARI: Atetik... eta goiz asko... zuregatik lapurrak sartuko ziran... Baiñan ez... zure aizpa txoroa da.

LIERNI: Egia esan, beranduago etorriko ziñala uste nuan. Ziñean ez al ziñan bada?

MIRARI: Bai, eta «Film» bat zoragarria ikusi dut, «My Fair lady» «Andre Ederra».

LIERNI: Ni emen berriz «neskame bikañaren» papera egiten, Telebisioan eltzeekin lan egiten, zuen aparta gertutzeko.

MIRARI: Nahi duzulako! Amak egingo zuan egunero bezela.

LIERNI: Kalera irten da ordea... Etxean «nobedadea» izan bait dugu.

MIRARI: Arritzen naiz! Zer da? Patata egosiak preji-tuen ordez?

LIERNI: Ez! «eper-muñak xaltxan». Ez al dago sukalde kontua besterik? Bada, oraingoan «chicle» dugu postretzat...

MIRARI: Broma gutxi! Ez adarrik jo!

LIERNI: Ez adarrik eta ez kitarrik! Au Xantirentzat gelditzen da...

MIRARI: Eta guretzat zer? Zaarrak berri?...

LIERNI: Atzeratua bizi zera. Ez nizuke deus esan behar, baiñan... Isilpekoa gordetzen baduzu, zerbait azalduko dizut. Aditzen?

MIRARI: Bai aizpatxo! Gure artean ez badugu konpian-tza geiagorik... Esaten asiko al zera?

LIERNI: Bada... bigar... Ez nuke itzegin behar... Tira!
dana dala, Kaliforniako amerikano bat gure
aitarekin itzegitera datorrela.

MIRARI: Gaztea al da? Eta ezkongaiia?...

LIERNI: Hori geiegi jakitea da. Industri-gizona, «bussi-
ness man», negoziotara datorrena; noski, sasoi
ta itxura onekoa izango al da!

MIRARI: Zaharra ta ezkondua baldin bada, ez daukagu
proetxurik...

LIERNI: Zer uste duzu, munduan zine-pelikula dala
guztia. Amerikanoak izan bear du gure aitari
negozio eskeintzaren bat egin beharra.

MIRARI: Aitari eskeintza ona egiten badio, alabaren-
tzat ere zerbait izango da.

LIERNI: Emengo mutillekin ez al duzu aski?

MIRARI: Oso «moteltzio» dira guziok!

LIERNI: «Leontxio» ere bai?

MIRARI: Hori zirikada al da? gaur zinera lagundu dida-
lako...

LIERNI: Ez ziri eta ez arramaska. Ez nekien ezer, sarri-
tan laguntzen dizula baizik.

MIRARI: Lagun eta adiskide beste edozein bezela. Ez
al derizkiozu ondo?

LIERNI: Niri? oso ederki! Poztutzen nau zuk orrenbeste «exito» izatea ta mutillak zure atzetik ibiltzea. Ea aukera onik egiten duzun. Ez dut besterik nahi eta ala opa dizut.

MIRARI: Nik ere bai bada... zuri... *(Ateruntz begiratuaz)* Norbait datorrela uste dut. *(Kaleko atea zabaldu ta Xanti anaia agertzen da. Gazte ajolakabe zamarra, lasai, «beatnik» edo «ye-ye» dalakoa, bere ille luze ta guzti)*

XANTI: *(Ez diosal eta ez agurrik)* Ez al zerate apaltzen asi oraindio?

LIERNI: Zure zai geunden. Ain aguro zu etxeratu izatea, larunbatean, gañera, arritzekoa da.

XANTI: Gazte naiz eta... gose naiz. Dirurik gabe, nora nahi duzu joan nadin? Egun guztiak ditut ostiral. Ez nintzan elizara joango errosaio errezatzera atso-agureak bezela.

LIERNI: Elizara ez dira zaarrak bakarrik joaten...

XANTI: Ez, zu bezelako monja-gai ta apaizen neskame batzuek ere bai.

MIRARI: Ez izan gaizki azia, Xanti! Kafeteria ta barretan zabiltzala ezagun duzu.

XANTI: Jakiña da; ta geiago ikasten dut Opus Deiko Unibersidadean baño... azaluts alenak!

LIERNI: Ez zazula orrela itzegin, min ematen dit. Jainkoak zigortuko zaitu.

XANTI: Nik ez dut txorakeria oietan sinisten. Emakumezkoen gauzak. Gure aita ez da elizara joaten, zerbaitengatik da sozialista.

LIERNI: Bai, baiñan zentzu geiago du zuk baño... eta ez da beñere erlijioaren gaizki esaka jarduten. Errespetatzen daki eta lan egiten gu aurrera ateratzearren. Zuk ez dakizuna alper orrek...

MIRARI: Gitarra jotzea besterik ez!

XANTI: Ori da nere «protesta». Ni ez nau iñork explotatuko «paternalismorekin». Ez aitak, ez nagusita ez ugazabak...

LIERNI: Nagusien «paternalismoa» zer dan ez dakit, baiñan gure aitaren «aitasuna» bai. Ain aita on, langille ta zuzena ez bagenu, ez ziñan zu «peritaje»-mekaniko eskolan ari izango. Eta ni...

XANTI: «Asistentia sozial», izengoitia, baiñan egiaz, auzoko sukalde miratzailea... Soziolojia merkea erakusten dizute apaizek... Amets utza! Mirarik kasu gutxi egiten dio orrelako sorginkeriai. Ez al da ala?... *(Burua beste gogartetan duala nabaiturik)* Nun zaude neska!

MIRARI: Ikusi dudan pelikulaz oroitzen ari nintzan.

XANTI: Zuk beti «zintera» joateko dirua sortzen duzu.

Ez dakit nola!

MIRARI: Bada... konbidatzen nautelako. Adiskide onak bai baditut...

XANTI: Bai zu... «manitas» egitera joaten zera... zinea ikustera baño...

MIRARI: Ta zuri zer? Txoro lotsagabea (*zaplasteko bat eman nai dio ta Xantik iges egiten dio*).

LIERNI: Bar eta kafeterietan «jinebra» ta «wisky» edaten ibiltzea obe al da?

XANTI: Al banu!... Arreba bi ditut, bata «manitas» eta bestea «caritas» (*Aizpa biek eraso bekie txandan*).

MIRARI: Zu bai «ye-ye», «beatnik», kalparluze, ondartzaille!

LIERNI: Eta kitarra jotzaille!

XANTI: (*Ziniko*) Au da zaparrada biek batera ezin txanda arturik. Zuen mingañak «mitralleta» dirudite, balen ordeztararrenak jaurtiaz. Sardin saltzailleak ez dira trebeagoak...

MIRARI: (*Atzetik jarraiturik, Xantiri masailleko bat emanetz*) Torizu!...

XANTI: Geldi zure eskuak!... «manitas»!

LIERNI: Naikoa esan diogu ta utz zaiozu bere ortan,
gure anaia da-ta. Jo ez!

XANTI: Eskerrak larru-azal gogorra dudala, bestenaz...
(*Mirariri*) Liernik biotz ohea du: «caritas». Ni
ordea «carota» izaki ta gitarra jotzera noa apa-
ria gertu bitartean. (*Barrura doa gitarra billa
bereala itzulitzekotan*).

MIRARI: Egin dezala nai duana.

LIERNI: Pakean utzi gaitzala (*Aizpa biek etxeko lane-
tan arduratzen*).

XANTI: (*Gitarrakin dator eta gela erdian jarrita, «Labo-
rari-gaxoa»ren doñuz onela abestutzen du*):

«Jo dezagun bai gitarra
erakusteko indarra.

Zarrek entzun dezatela gazteen asarre gogo-
rra

guk gura dugu oporra
ardo ta neska koskorra.

O gazte doakabea
Iretzat duk lanbidea!

Diru-eza, maisu geiegi, beti liburuz ase

naska bat duk bizitzea besteren mende egotea».

Ez nago konforme, ez nago konforme
baizik asarre kantatzeko debalde
Zer arraie!

Asarre nago ta entzun nere protesta
Naiago nuke jan arkumea erreta
Zer puñeta!

Ez nago konporme, ez nago konporme
baizik asarre kantatzeko debalde
Zer arraie!

Au ez da soziedade, ez kuxidade
Gitarraz kantatzen det nere protesta
Zer puñeta!

LIERNI ta MIRARI: (*Batean*) Baiñan zaude isilik! Burutik egin al zaizu? Txoroa.

XANTI: Zuek ez dakizute oraingo berri. Protesta-kantak dira.

MIRARI: Aita ta ama kaletik datozela uste dut.

LIERNI: Bai, ala dira. Gorde zazu gitarra.

XANTI: Or utziko dut. Ez da ere balitz bonba atomika.

(Baztar batean ezkututzen du).

(Markos eta Agustiñe

kaletik datozela sar bitez).

AGUSTIÑE: Zer gertatzen da emen?... Kanpotik ere zuen adaila entzuten zan. Ez jakin kantan ari ziñaten... ala burrukan!

MARKOS: Musika?... Zera... oiua ugari! Iskamilla.

XANTI: «Dialogoan» ari giñan. Orain modan dagon elkarrizketan.

LIERNI: A zer nolako elkarrizketa, «oker izketa» bai.

MIRARI: Edozein lotsagabekeria esaten bait digu... onek.

XANTI: Kalean entzuten diranetakoak besterik ez, gazteen artean. Eta alare biek nere aurka.

AGUSTIÑE: Senideak ez dute burrukarik egin bear *(paketsu)* Auzoan zer esango ere! Tira! *(alabai)* aparria maniatzen lagun nazazute *(Neskatxak amaren inguruan bildurik)*

MARKOS: *(Semeari)* Gaur etxera, ain goiz, iskamilla jartzera etorri al aiz?...

XANTI: Goiz etortzeagatik ez al didazu erritarik egingo nik uste...

MARKOS: Goiz etortzea ondo zegok, bañan zintzo jokatzekotan.

XANTI: Al dantxoa egiten dut beintzat ta...

AGUSTIÑE: Gaur ez dugu asarretzeko eguna, oso pozik egotekoa baizik... Orregatik apari obexea-goa emango dizuet bigarko orde...

MARKOS: Pakean uzten bagiñuzteke, bai! Oraindik ez didate eskuak garbitzeko betarik eman! (*Sukaldeko iturrira bijoa*)

AGUSTIÑE: Txuleta eder bana ekarri dizuet, ederki kostata! Ea Lierni! Ar itzazu ta jarri zartagian babazuri ta gatzez poliki maneatuaz...

LIERNI: Ni beti, sukaldari!

MIRARI: Eta ni gatzemaille!

XANTI: Ni bazkaldar! Gose dagonari jaten eman bear bait zaio Ebanjelioak dionez. Eta aragitik baldin bada obe... Patata egosiak jatez asperturik nago.

AGUSTIÑE: Arraultz bana ere emango dizuet...

MIRARI: Nik ez dut arraultzarik nai, gogo ezik nago.

XANTI: Orduan nik jango ditut biak... zurea ta nere... maitea!

AGUSTIÑE: Mutillak asko jan bear dute gizon egiteko ta aitari laguntzeko.

MIRARI: Bai, mutillai gutizia, jakiña, ta guri... (*Une ontan ateko txiliña entzun bedi*)

AGUSTIÑE: Zaude isilik eta zoaz atean nor dan ikustera. Aguro!

MIRARI: Bai ama! (*Bijoa ateruntz*)

(Agustiñe ta Xanti elkarrekin gelditzen dira; eta sukalde bazterrean Markos eta Lierni daude)

LIERNI: (*Aitari*) Orain ere norbait dugu atean.

MARKOS: Esaten ari natzaizute bada... Gaur ez didatela ez txukuntzen eta ez apaltzen utziko. Bigar-koaz berriz ez dut gogoratu nai...

MIRARI: (*Atetik*) D. Karlos eta beste jaun bat dira.

* * *

(Berri onek, itxumustuan, etxekoak txunditurik uzten ditu zer egin ez dakitela. Atea zabaldutakoan ager bitez D. Karlos eta Mr. Simpson-Hiriart amerikanoa).

D. KARLOS: (*Aurreratuz, ondoren Mr. Simpson doala*)

Barkatu desgaraiz bagatoz. Baiñan...

AGUSTIÑE: Aurrera! Aurrera!

D. KARLOS: Emen dugu Mr. Simpson-Hiriart! Uste baño lehenago etorri da ta gaur bertan Markosekin mintzatu nai du. Ez ikaratu. Gizon ondo ezia da eta zuek agurtzeko irrikitzen dago.

MR. SIMPSON: (*Lapurtar-napar mintzaira doñuz itzegiten du*) Arratsalde on! Eldu niz ba! Ez beita astirik galdu behar... *Time is money!*

D. KARLOS: Emen (*Markos aurkezturik*) Markos Amua-tegi jauna, mekaniko nagusia.

MR. SIMPSON: (*Markosi eskua bortizki estutuaz*) *All right.* Zer modu?

MARKOS: Ondo esan bearko. Eskarrikasko. Zu ere bai?

MR. SIMPSON: Arras ongi!... *Thank you very much.* Anglesez obeki mintzaten niz, baina... ez dut ahantzi euskara...

D. KARLOS: Emen emazte to seme-alabak... (*Mr. Simpsonnek guziori egin bezaie diosala eskua emanaz*)

MR. SIMPSON: Atsegin andiz! andre to emazteki gazteek ikusiaz.

AGUSTIÑE: Gure atsegiña aundiago da gure etxe apa-
lera etorri zeralako. Onek (*Liernigatik*) ingлезez
zerbait zerbait mintzatzan badaki.

MR. SIMPSON: *Yes? Very pleased. Do you speak
english?*

LIERNI: *Pizka bat! A little only!*

MR. SIMPSON: *Very well! Darling girl!*

LIERNI: *I thank you. You are very kind.*

MR. SIMPSON: *Not at all. (Une ontan ertz batean Mira-
ri to Xanti espaz daude; bestean Agustiñe to
Markos; eta erdian D. Karlos, Lierni to Mr. Simp-
son. Oni eder zaizkio andre to neskatxak).*

D. KARLOS: (*Lierniri*) Lierni, Mr. Simpson-Hiriart presa-
ka etorri da negozioak egitera, ta ez inglez
erakustera. Ez da ala?

MR. SIMPSON: *Certainly! Bussiness and love!*

LIERNI: *Bussiness.*

AGUSTIÑE: Gu erretiratuko gera gizonezkoek lasaigo
itzegin dezazuten. Goazen barrura! (*Lierni ta
Mirariri*) Eta zu ere bai Xanti! Zuek geldi zaitez-
te emen eta eseri.

D. KARLOS: Oso ederki etxeoandre, laister bukatuko
dugu. (*Agustiñe ta seme-alabak barrura doaz,*

antzeztokian Markos, D. Karlos eta Mr. Simpson bakarrik gelditurik)

* * *

MARKOS: Barkatu lenago eser lekurik eskeiñi ez badi-zuet. *(Mai inguruan jarlekuak urbilduriz eser-tzen dira)*

MR. SIMPSON: *(Markos agurtuaz)* Zu ez zaitut ezagu-tzen baiñan zure makina-erramintak bai! Cara-casko «exhibizioan» ikusi nituen. Eta guk baño merkeago Amerikan sal ez ditzazuen, Trust bat eginen dugu... Ez da ala jauna?

D. KARLOS: Entzun al diozu, entzun Markos? Gure esku dago.

MARKOS: Hori enpresako nagusiek erabaki bearko dute. Ni ez nazu mekaniko nagusia besterik.

MR. SIMPSON: *Oh no!* Ez, yauna ez! Makinaren asma-tzaillea zu zerala badakit. Eta patentea erosiko dizugu...

MARKOS: Orretarako, enpresa zaarretik kanpo gurekin konpondu nahi du, Soziedade berri bat egiñez.

MR. SIMPSON: *All right!* «American Mecanical Corporation»kin batean. Dollaretan zenbat diru eskatzen duzun esan eta kito!

MARKOS: Gauza oriek ausnartzeko astia bear dugu. Nik ortaz ez dakit ezer.

D. KARLOS: Markosek arrazoi du. Onela bat-batean, Mr. Simpson, ez diteke ain arazo aundia erabaki... Bigar...

MR. SIMPSON: *All right!* Bigar goizean obe. Gaur lo egin oiean... *Mistress...* (*par algara txoruaz*) ja! ja! ja! ta bigar dolarrak zure sakelean! «*Time is money*».

D. KARLOS: Ez arritu, Markos. Onek (*Simpsonengatik*) fabrika berria egiteko lurrak erosteko presa du. Ogei milla metro! Ta garestitu aurretik!

MARKOS: Dirua erruz ekarri badu, gauzak antolatuko dira. Orixen da presa!

MR. SIMPSON: Bai jauna. Atzo New-Yorken gosaldunuan; Parisen afaldu. Egun berriz, Madriden bazkari egin, emen jan eta lo. Bigar guzia «*finished! out!*» (*Eserlekutik jeiki*az) Ja! ja! ja! «*Time is money*» (*Markosi bizkarrean zapalada eman*ez)

D. KARLOS: Amuategiko soroak lantegi berrirako begiz joak dauzka. Non toki egokiagorik?...

MARKOS: Nola? (*Kezkati ta goibel*) Ni jaio nintzan Amuategi baserriko soroak?... Ez dira nereak baiñan...

MR. SIMPSON: Bigar izango dira gure dolarrez erosiak. Beraz... biar goizean, amarretan, «Euro-Majestic» Hotelean zuen zai egongo naiz (*Abituaz eta D. Karlosek lagun egiñez*) Goazen bada! Pentzatzeko gau guzia baduzu. Ondo lo egin! ... (*esku emanaz*)

MARKOS: Gabon! (*bijoaz Mr. Simpson eta D. Karlos*) (*Atetik kanpora ezkutatu diranai begiraturik eta burua bi eskuen artean eutsiaz*) Kezka geiegi gaur ondo lo egiteko. Kapitalismoaren sarean arrapatu naute. Arrentzale zana biurtu da... eskalu! (*Ontan, etxe barruko atean Agustiñe, Mirari, Lierni ta Xantik burua agertzen dute*).

AGUSTIÑE: (*Itzez baño geiago begiz ta ximikoz galdegiñez*) Ta?...

XANTI: Gaur ez dugula etxean telebisio bearrik...

MARKOS: (*Zakar*) Ez!

AGUSTIÑE: Eta bigar... zer?

MARKOS: Auskalo!

*(Isilune labur baten ondoren,
ZAPIA astiro erortzen da)*

BIGARREN EKITALDIA

(Etxe barne berri, eder eta aberats bat. Mueble apaiñez ornitua: Kurtina, alfombra argi, eserleku ta mai ta beste puskaz gañezka. Aberats berrien kutsua nun naitik dariola. Ainbeste pitxi ta edergalluz, ez da noski lasa ta eroso bizitzeko lekua.

Joxepa etxe aberatseko neskame eran jantzia eta Markos nagusia kaleko traje txukunez. Au kalera irtetzeko zorian dago).

MARKOS: *(Etsita) Ai Joxepa! berriz ere esango dizut bada: gure etxea zoro-etxe biurtu dala. Emen onenbeste alperrikako pusken artean ez dago ezertarako lekurik. Etxea pitxiz beterik eta nere andre ta alaba Mirariren buruak aizez eta txoriz... Ez dut jakin nai zenbat diru txautzen ari zaizkidan. Negar guria ematen dit! Etxetik alde egiteko gogo... Emakume oriek! (Gela barruan ibiltzen ezin asmatu duala)*

JOXEPA: Liernigatik ez duzu hori esango, naski?... Zentzun geiago duan neskarik... Ene!

MARKOS: Beste ama-alabarengatik diot... Eta semea, berriz, ez aipatzea obe! Alderdi ederra daukat!

JOXEPA: Eramankizuna artu behar... Garaiz aldatuko dira.

MARKOS: Eskerrak, bai, Lierni bestelakoa dala; eta zu etxean zaitudala. Osterantzean astakeriren bat egingo nuke.

JOXEPA: *(Autsak kentzen garbiketan ari dala)* Emen aña pitxi, edergaillu ta gauza! Garbitzeak lanak ematen ditu, alajaña! Diru geiegi izateak dakarzkina gaitzak.

MARKOS: Errez irabazitakoa laister gastatzen dala, a zer nolako egia!

JOXEPA: Zuk esku-zabal ematen diezu-ta... Gure etxe-koak ez daude asarre «Amuategi» baserria saldutakoan jaso duten dirutzakin...

MARKOS: Aide ta familiakoei ez badiegu laguntzen! «Amuategi» baserria! Guziok an jaiok bait gera! Ua utzi beharra ere beltza izan zan...

JOXEPA: Ez uste! Nere guraso zaarrak, zuri eskerrak, pozik bizi dira orain kalean.

MARKOS: Begira! Diruak alderdi on hori badu: senide ta familikoeri laguntzeko balio duala. Geiegi iza-teak, neurri batetik gora, ezin etxean egona, urdurikeria bat, nik al dakit! erdoia ta pozoia sortzen ote dituan nago; ta lagun beartsuen-gandik bereizten gaitu.

JOXEPA: Zaude isilik! Diru-eza ta mixeria okerrago dira bai!

MARKOS: Bai, noski, baiñan, Joxepa, aitor behar dizut langille soil bat nintzanean orain baño lasago lo egiten nuala. Eta gaur kapitalista izeneko naizelarik kezka eta buruaustez josita nabilkizula...

JOXEPA: Konporme! Gaitz ortatik ez dut sendatu beharrik... Gauero neka-neka egiñik oieratzen naiz. Lo egiten ez da ni añako aberatsik...

MARKOS: Diru-aberastasuna aztuna da eta errez usteltzen dan gaia...

JOXEPA: Ez dakit bada! Orren atzetik dabil jendea-ta. Eta ni ere ez nintzake zuen etxean neskame izango zure andre ta alaba Mirariren arropuzke-riak egunero jasanez... peseta batzuek irabaz-teagatik ez balitz... Onuzkero alde egin nuan!

MARKOS: Arren Joxepa! geldi zaite. Ez zazula jaramo-nik egin etxeoandre ta «señoritatxo» orrek

egiten dizkitzuten destañai! Ni emen nagon bitartean, ez zaizu ez zuri ta ez zure senideai ezer faltako... Lengusu txiki baño geiago, arreba zera neretzat.

JOXEPA: Ez izan beldurrik, Markos, «primo»... Zu ta alaba Lierni etxe ontan bizi izango zeraten artean, ni ere zuekin «serbitzari» geldituko naiz. Orrenbeste zor dizuet-eta...

MARKOS: Eskerrikasko Joxepa! Ni bizi naizen bitartean ez zaizu nere laguntzarik faltako; ez zure guraso ta ez zuri. (*Isilpeko esanaz*) Etxe ontan dirua erre kara, erruz botatzen da. Nere andrea da okerrena. Orregatik zuri bakarrik konpiantzan esaten dizut, «sekretaire» kajoi ontan amar milla duro gorderik dauzkatela (*tokia erakutsiaz*). Zu beste iñork ez dakin isilpekoa da. Ez beraz iñori esan. Beste txoko ortan gordetzen dut giltzatxoa... Iñoiz beartzen bazera, nun dau den badakizu. Zer gerta ere itzik ez etxekoai!

JOXEPA: Ez jauna! ez. Itzerdi bat ere! Zaude lasa. Ezer ikutu gabe zainduko ditut... («Sekretaire» dagon lekutik ateruntz Markosen ondoren joanez) Etxekoandrea onuntz datorrela nabaitzen dut... (*adi, adi*) Bera da bai! Noan nere eginkizu-

netara. (*Ertzeko ate txiki batetik aienatzen dalarik*)

MARKOS: (*Kaleko ateruntz abiatu*) Nik ere ez daukat geldi egoterik...

AGUSTIÑE: (*Etxe barrundik ots egiten dio*) Markos! Markos! (*oso apain jantzita agertu bedi*) Orain ere niri agurrik egin gabe bazinjoazen.

MARKOS: (*Kaleko atetik*) Zer egun dugun badakizu... eta presaka ninjoakizun...

AGUSTIÑE: Bostak arte denbora baduzu... Garaiz zoaz...

MARKOS: Kontseju billera aurretik lan batzuek egin behar ditut. Paper batzuek garbi ipiñi... ta.

AGUSTIÑE: Lierni an duzu-ta berak egingo dizkitzu... (*Senarrarengana urbilduaz*) Zuk Kontseju-bilerako traje berria jantzi behar zenuke...

MARKOS: (*Zakar*) Soñean daramakidanarekin naikoa dut...

AGUSTIÑE: Zarpail xamarra daukazu! (*Eskuekin autsa ta zikin zenbait kendu naiez*) Gutxienez txukun eta garbi azaldu zaite eta (*korbata estuturik*) korbata, zuzen bere lekuan...

MARKOS: Utz zaidazu emakume, berdin da-ta...

AGUSTIÑE: Ez! zure andreari emango diote errua! Niri!
bai.

MARKOS: *(Alde egiñez)* Baita! baita! Gero arte.

AGUSTIÑE: Zoaz, bada, zoaz *(musu emanaz)*. Ea billetara ondo bukatzen duzuten. Ez berandu etorri!

MARKOS: *(Kanpotik)* Al izango dudanean *(Bijoa)*

* * *

*(Markos joandakoan, barrengo atetik
Xanti ager bedi, kalpar luze betiko itxuraz).*

XANTI: Zaarrak anka egiteko garaia zan. Noiz aldegingo zai nengoan.

AGUSTIÑE: Zer da itzegiteko era hori? Aita duzu ta errespetoa zor zaio...

XANTI: Zor?... zorrak nik ditudañak dira. Au da lotsa! Seme bakarra izan, ogei urtetik gorakoa ta aitak dirurik ematen ez!

AGUSTIÑE: Obe zenuke geiago estudiantu. Gastatu besterik egiten al duzu bada?...

XANTI: *(Ama losintxatuaz)* Amatxo, orretarako ere dirua beharrezkoa da. Oraintxe bertan ogei

durokoa eskuratzen ez badidazu, ez nezake ezer egin; ez niteke joan iñora, ez lagun artera azaldu, eta are gutxiago andregaiarengana. Zai daukat gaixoa! (*Ama laztandurik*)

AGUSTIÑE: Ondo jaioa dago zure zai badago! Begira Xantitxo, gaur, dan egunagatik, emango dizut, baiñan geiago ez zintzotzen asiko zerala ez badidazu agintzen... eta illea moztuko dizute-la... (*Eskua burutik pasatuaz*)

XANTI: Bai amatxo, agintzen dizut (*amak ematen dion dirua jasoaz*). Bizargilleak erdia kobratuko dit. Gañera, kalpar luzea buru solla baño obea da. Ni «beatnik» nazu ta konpromisuak ditut. Zuk zer dan hori konprenitzen duzu; aitak berriz ez!

AGUSTIÑE: Amak ala gaituzu, semeai ezer ukatzen ez dakigunak! Askotan txarrerako!

XANTI: Ez ama! (*musu emanetz*) Eskerrikasko! Eta gero arte. (*Badoa laisterka atetik kanpora*)

AGUSTIÑE: (*Begiratzen diolarik*) A nere kutuna!

*(Mirari beste ate batetik azaldurik, kale-
tik baletor antzera, eskuan puska
batzuek dakarzkilarik).*

MIRARI: «Mamy»! Ikusi zer gauza politak erosi ditu-
dan. *(Sakel-zorro apain batetik, pitxi, oial eta
ontzitxo zenbait jalgiaz mai gañean ipintzen
joango da)* Ez al dira politak?...

AGUSTIÑE: *(Eskuarteetan sedazko oiala artu ta azter-
tuaz)* Politak?... Alaxen dira bai! Dendako gales-
tienak ere bai, hori seguru dakit. Gastatzen,
ondo nere alaba zera! Eskerrak zure aitak diru
asko irabazi duala, bestela...

MIRARI: Ez uste! Pitxi auek *(erakutsiaz)* merkeak
dira... Ez pentsa urrezkoak diranik, soñekoak
ornitzeko baizik. Berriari «konpleto» itxura
pizka bat emateko. Soñean jartzeko modako
ezer gabe bait nago.

AGUSTIÑE: Isilik zaude! Zer geiago eskatzen dizu kor-
putzak?... Arasa, soñeko ta trajez beterik dau-
kazu-ta.

MIRARI: Moda zaarrekoak ordea... joan dan urtekoak!
Eta aurten ezin eraman izango ditut berriztatu
gabe...

AGUSTIÑE: *(Alabari begiratuaz)* Soñean daramazuna oso egoki daukazu bada. «Modelo» guztiz polita da! *(Alaba biratu araziaz goitik behera azterturik)*

MIRARI: Oso ikusia dago modelo au! Orain, gañera beste kolore batzuek erabiltzen dira. Orregatik onoko gai au erosi dut *(Ekarri duan oiala erakutziaz)*

AGUSTIÑE: Bai, au polita duzu nolainai erabiltzeko, jantzi baterako, goiz eta arratsaldetako, kalerako...

MIRARI: Eta beste sedazko onekin *(erakutziaz)* gau soñeko bat josi araziko dut, festetara joateko Mr. Simpsonek otsegingo digunean. Pitxi auekin «chic» geldituko da... Urrena, «mamy», txirlazko kollara on bat eta kolkorako urrezko apaingarri eder bat ere bear ditut.

AGUSTIÑE: Guk badezakegu, baiñan, Mirari, eskongaietan ez dago ondo lujo geiegizko pitxirik eramaterik. Mutil... senargaiok ikaratzen dira. Gala oriek ezkondu ta gerozkoak dituzu.

MIRARI: Ez dakit noiz! *(Muzin bere burua ederetsiaz)*

AGUSTIÑE: Noizbait sortuko al zaizu! Ez dezazula uxa azaldu dezaizunean... Itxoin! Ez geiegi agertu...

MIRARI: Aberats izateak ez du orduan ezertako balio!
Maillaz igo gerala-ta ez da ezertan ezagun. Ez
bait gera iñora joaten... Beti etxe zuloan...

AGUSTIÑE: Ez zazula orrelakorik esan! Erañegun
«Tontor-Aundinean» «guateke» zenduten.
Datorren larunbatean «Euro-Majestic» Hotelean
gau festa duzute. Erriko aundiki guziak an izan-
go dira.

MIRARI: Orregatik bada apain agertu behar dugu. Guk
baño diru gutxiago duten aundikiek ez gaitza-
ten goitik behera hegira. «*Parvenus*» aberats
berri geralakoan.

AGUSTIÑE: Hori ez! Ez diogu iñori ezer zor. Ez ene-
txoa! Inbidia digutela, gora igo geralako... Nai
dutena egin dezatela! Guk erosten dugun guzia
pagatzen dugu, ez beste aristokrata usteko zen-
baitek bezela...

MIRARI: Jakiña bada! ta ogeitabost urte izandakoan,
«bison» larruzko abrigoa erosiko didazula ez
nago aaztuta...

AGUSTIÑE: Itxoin, alaba! Oraindik ez dituzu bete-ta.
Gañera, aitak jakingo balu... asarretuko litzake!
Xantirekin izan dugun naigabearekin aski dugu.
Ez dugu beste istillurik behar.

MIRARI: Bai, bañan Xanti or dabil beti bere automobiliarekin gelditu gabe eta gu beti etxean iñora joateke...

AGUSTIÑE: Zerbait palta al zaizu etxean? ...

MIRARI: Palta? palta?... Mutillek ez didate telefonoz otsegiten eta ezin iñora joan! Ezta zinera ere!

AGUSTIÑE: Ez izan orrelako tirriarik! Txanda etorriko zaizu... Zure aizpa Liernik ez dit orrenbeste lanik ematen.

MIRARI: Ni baño zaarrago dalako nahi duana egiten uzten diozulako. Baita ere mutil komunista-zaleekin ere ibiltzen, Simon hori da bat elizara joaten ez dana!

AGUSTIÑE: Konbertitu egin naiko du ta...

MIRARI: Konbertitu ala... limurtu... ez dakit! Maizegi dabiltz elkarrekin.

AGUSTIÑE: Lantegiako ofizinetako enpleadu danez, ez da arritzeko artu-emanak izan ditzaten...

MIRARI: Zerbait geiago ere bai!

AGUSTIÑE: Ez zaite gogaikarri izan! Nagusiaren alabek aukera izango dute, gero ere! Itxura gordetzen jakin zazu jendeen aurrean, eta etxeko «gobara» etxean geldi dedilla. Oraintxe espero dut D. Karlosen andrea bixitan, eta kontuz itze-

gin. Gizonezkoekin nola joka zuk jakinko duzu, baiñan emakume arten nola jardun ez aaztu...
(*Ontan, ateko txilin otsa entzun bedi: trin, trin...*)

AGUSTIÑE: Margo da! Bai, bera izan bide... da. (*Etxe barrundik Joxepa ateratzen da atea zabaltzera*)
D. Karlosen andrea baldin bada, Joxepa, sar araz zazu onera. Eta beste norbait baldin bada, aurreko salara!

JOXEPA: Bai andre!

MIRARI: Margo hori ez dakit zergatik datorren ain maiz gure etxera. Beti emen da! Gogaikarri ez bestena!

AGUSTIÑE: Mirari! Kontuz zer esaten duzun! Gure sozio D. Karlosen andrea da-ta. Bere aurrean ez nolanai itzegin (*Ateruntz joanez*) Aurrera! Bera da bai! Aurrera Margo! (*Elkarri musu eman ez lenengo, eta gero barnera sartutakoan Mirariri*)

MARGO: (*Dotore-dotore jantzia, dan baño gaztego agertu nahirik*) Ez duzute esango garaiz etorri ez naizenik!

AGUSTIÑE: Bai, bai, goiz zatoz eta oso apaiña gañera... Benetan «chic». Jantzi biziki polita dakarkizu...

MARGO: (*Errege-ollar antzera bira emanaz*) Ala al deritzaizu? Igazko soñekoa dut bada... zerbait aldatua...

AGUSTIÑE: Arras ederki gelditzen zaizu. Berria dirudi.

MIRARI: Nik daramadana baño obea...

MARGO: Zu lirañagoa zaude, bai alajaña! Zure linea artuko nuke... (*Begiratuaz*) Modeloa ere oso polita duzu.

AGUSTIÑE: Nere alaba au oso kontengaitza dugu!

MARGO: Gazteak ez dira ezerkin asetzen...

AGUSTIÑE: Au ez beiñik bein! Nahi duan guzia emanda ere!

MIRARI: Ez da egia ama! (*Musin*) Traje au ez zait baterre atsegin eta beste bat jantzitzera noa (*aldegin naiez*).

AGUSTIÑE: Zoaz bada, neska! (*Mirari, zaputz, gelako beste muturrera doa, andre biek erdian utzirik*)
Ernegarazten nau!

MARGO: Utzi zaiozu! gure urteak izatean eta guk aña ikusitakoan ikasiko du baretzen...

AGUSTIÑE: Nik ala uste! Ez dago mundu txarra! Eseri gaitzen bai... edo obeto, barrengo sala txikira joan gaitzke erosoago mintzatzeko...

MARGO: *(Isilpean)* Berri on bat eman bear dizut. Mr. Simpson eguardian etorria dala ta nere senarra ta biok elkarrekin «Majestic-Grill»en bazkaltzen zirala. Fabrika joan aurretik, onera, gu agurtzera sartu-atera bat egingo digutela agindu didate.

AGUSTIÑE: Nere gizonak, bada, ez dit ezer aitatu. Orratx! ez bait da batere gizartekoa... Bekozkoa jarririk, kopet illun dabil aspaldi eta alde egin dit. Ez dakit negozioak ondo dabilzkien edo...

MARGO: Aldarte txarren bat! Bestela negozioak... pentsa, Mr. Simpsonek guretzat esku-erakutsi ta erregali ederrak ekarri dizkigula badakit...

MIRARI: *(Zegon bazterretik pizkana urbiltzen kontuak jakin gosez)* Neretzat ere bai!

MARGO: Guzientzat! nola ez!

AGUSTIÑE: Zaputza joan zaio!

MIRARI: Gizon zoragarria da Mr. Simpson! *(Berekiko)* Ez emengoak bezelakoa...

AGUSTIÑE: Eta asko ikusia... Beti atzera-aurrera «abioean» dabillena.

MARGO: Bi bider dibortziatua omen da-ta...

AGUSTIÑE: Bein bakarrik dibortziatua zala uste nuan...

MIRARI: Azken emaztetik berezita baldin badago, berriz ere ezkondu ditekena da orduan...

MARGO: Ameriketari bai, nere senarrak esaten duenez. An oitura ta legeak alakoak omen dira...

MIRARI: An Amerikan zillegi dana ez dakit emen zergatik ez.

AGUSTIÑE: Tuntuna ez bestena! Eliza katolikoak uzten ez dualako. Ez al unan hori ikasi monja-kolejioan?... Ez dago zure aizpa Lierni entzuten!

MIRARI: Hori lenago zan ama! zuen gazte denboran! Orain, Batikano Bigarrenaren Konzilioa ondoren, gauzak eta legeak aldatu dira... apaizan jantzia bezela.

MARGO: (*Parregiñez*) Onek aterako dizkigu eltzetik babak!

MIRARI: Zer bada? «Klergyman» berriak...

AGUSTIÑE: (*Etenaz*) Isilik zaude txorakeririk esan gabe! Eta goazen barrengo salara. Lierni orlangelan dagola sumatzen dut eta beste norbaitekin. Ez nuke nahi gure berriketak entzun ditzaitez (*abituaz*) ta Mr. Simpson etorri dedinean gutxiago... Joxepa!

JOXEPA: (*Barrengo ate batetik*) Zer agintzen du señorita?

AGUSTIÑE: Bada laister bixitariak espero ditugu ta emen sartu. Gu barrengo salatxora goaz.

JOXEPA: Ondo da etxekoandre!

(Bijoaz Agustiñe, Margo eta Mirari)

* * *

(Lan-gela edo despatxoa dalakoan atetik Lierni ta Xanti ager bitez. Onek galtzarbean kartera darama ta beste eskuan zenbait liburu).

XANTI: Etxe au beti bizitariz beterik dago ta ezin estu diatu diteke. Beraz kalera noa!

LIERNI: Lekzioak ikastez aguro aspertu zera. Zuk beti aitzekiren bat baduzu.

XANTI: Uzten al didate bada nere barnera biltzen?... Ekonomiaren problemak sakontzeko?... Kafeterian giro egokiago dago.

LIERNI: Bai... ke artean! Aitzeki polita ezer ez egiteko. Emen ez zaitu iñork galerazten ez badira liburu ta problema berak. Zuk ordea maiteago dituzu kafeteria ta alperkeria. Onela ez duzu sekulan

ekonomista karrera bukatuko ta are gutxiago gai izango aitari laguntzeko.

XANTI: Ez da nahi ere! zu naikoa zaitugu orretarako: lana-eralguntza, ekonomia, produktibidadea... ez zaizkit buruan sartzen. Nik beste problemak ditut...

LIERNI: Bai, dirua txautu, automobillean ibilli ta aitarren bizkar bizi.

XANTI: Gizarteko estruktura sozialak aldatu arte barrenak ez dit agintzen...

LIERNI: Zer? lanegin eta estudiatzea? ala gitarra jotzea?

XANTI: Ez zaidazula arparik jo Lierni! Begira! Ikusi! (*Liburu bat iriki ta erakutsiaz*) Nola nahi duzu mordolokeria auek ikastea! Entzun (*irakurriaz*): «Ekonomiak bere bizitza barruan zartadak izan oi ditu: aundiagoak ala txikiagoak. Kondizionamentu auek alde batera utzirik, dinamikaren barruan bakarrik konpondu dezakegu».

LIERNI: Ondo dago, bere mamia du ta eibartarren batek egiña dirudi. Zuen maisuak... alabeharrez...

XANTI: Azal ona bera ta mami gutxi! Begira zer diñon: (*irakurriaz*) «Dinamika ta teknokrazia alkarren

kontra doiaz...» (*liburua lagarik*) Nik ez dut burrukarik nahi teknokraziarekin. Dinamika autoan ibiltzea baldin bada, hori bai, ortan leiatuko naiz.

LIERNI: Ezin bizi izango zera beti orrela eta egunen batean gaizki ikusi behar duzu zere burua.

XANTI: Gaur amak ogei duroko bat eman dit eta korrituan jartzera noakizu.

LIERNI: Aitak nekez irabazitakoa. Gizon izateko adiñean zaude ta egia jakin behar duzu: lantegian gauzak ez dijoazela ondo. Langilleak opor egingo duten susmurra dabil eta au nahigabe izugarria da gure aitarentzat. Nagusi ta ugazaba baño lehenago langille ta behargin izan zan batentzat. Guk lagundu behar diogu... D. Karlos eta amerikanoa etorri dira gaurko kontsejura eta joku txarren bat sortu ditekela zioten.

XANTI: Bizia jokua bait da. Or konpon! Nik neronek naiko problema, kezka ta buruauste baditut. Zure sermoiak entzutea gutxi al da?

LIERNI: Entzun bai, baiñan belarri batetik sartu ta besetik ateratzen zaizkitzu. Estudiatu nahi ez baduzu, bederik fabrikan lanean asi zaite.

XANTI: Lanean asi? Ain gutxi maite al nazu? Konsejero izendatzen banaute, ortxe nunbait! Mister amerikanoa oso adiskide dut. A zer nolako auto berria ekarri duan: «Pontiac» chauffeur jarriko banindu...

LIERNI: Ez zazula esan txorakeririk!

XANTI: Esan ez, egin, izugarrikeriaren bat egingo dut lanean asi baño lehenago...

LIERNI: Zaude isilik. Ez dago zurekin itzegiterik. Goazen, goazen! (*abituaz*) Zoaz aizea artzera, burua beroturik daukazu-ta.

XANTI: Etxetik bidaltzen banazu, joango naiz. Ez esan, gero, beti kalean nabillela. Ortan obedituko dizut... (*doazelarik*)

LIERNI: Ai! anai ajolakabea! Noiz zentzatu behar duzu? Lagundu nazazu, bai, fabrikara noa-eta. An dezu zure lekua.

XANTI: Ai arrebatxo laztana! (*besotik elduta irten bitez biok atzeko atetik*) (*Ortan, ate nagusiko txintxarri otsa entzun bedi eta Joxepa nor dan ikustera azaltzen da*)

JOXEPA: Gaur etxe onek errota dirudi! Orrenbeste sartu-irten eta txintxarri otsa! Ezta erromerian ere! Noan!

(Atea zabaldutakoan D. Karlos eta Mr. Simpson agertzen dira. Ondo bazkalduta gero datoz, eta amerikanoa batik-bat whiskyz susperturik dator).

Sartu bai, eta eseri zaitetze. Etxekoandreari etorri zeratela esatera noakizute... Nagusia fabrikan da.

D. KARLOS: Eskerrik asko, Joxepa *(Au barrura dijoa)* Markos fabrikan izango zala esaten nizun. Ez du ikasi oraindik ugazaba izaten...

MR. SIMPSON: Gaizki hori! Langillea langille, nagusia nagusi!... *Necessary discrimination!*

D. KARLOS: Orregatik diru arazoa gure gain artu behar dugu, kredito... ta gañerakoak...

MR. SIMPSON: Eta emakumezkoak... *(par egiñez)* ja! ja! Miss Mirari beti bezain eder eta «sexy» dagon ikusi ta ikutu...

D. KARLOS: Kontuz! ez dakizu senargairik ba ote duan...

MR. SIMPSON: Izanda ere berdin! *No discrimination!*

D. KARLOS: Andre ezkonduekin sartzea... gaitz erdi.
Bañan emakumezko ezkongaeikin arrisko aundiago duzu.

MR. SIMPSON: *No discrimination!* Oro bat! Guzientzat erregali batzuek ekarri ditut. Damai limurkeria egin behar zaie...

D. KARLOS: Ez da gezurra! Nere andrea txoratzen gelditu da eskeñi diozun «bolso» zorro ederragatik.

MR. SIMPSON: Beste bat antzekoa baiñan ezberdiña emen daukat (*kartera señalatuaz*) Mrs. Amuategirentzat.

D. KARLOS: Pozik eta arro utziko dituzu gure andreak!
Nola aiekin burutu?

MR. SIMPSON: Eta orrela senarra guk nahi dugun bidetik eramango dugu. Andreak etxean agindu dezala... eta fabrikatu guk! Sikolojia ta ezkereskua! *Human relations!*

D. KARLOS: Ez da ain errez, Mr. Simpson! Markos egoskorra da! Optimistaegi zaude. Whisky geitxo edan ote duzun nago. Baezpada ez emen emakumezkoen artean gure asmoen berri eman.

MR. SIMPSON: Ez gizon! (*keñu egiñez*) *Bussiness is bussiness*, negozioa negozio! Eta emakumeak emakume! (*Par-algaraz*) Ja! ja! ja! Danak bat!

D. KARLOS: Orain isilik! emen ditugula uste dut. Eseri gaitzen eta kontuz zure itzekin. (*Eseri bitez*)

MR. SIMPSON: *All right!* Zutik egotez nekatu naiz.

D. KARLOS: Berriz ere jeiki beharko duzu ba (*emakumezko abotsak nabaritzen dira*) Ementxe ditugu! Altxa! (*berriz zutik jarriaz*) Itxoin arazi diguzute! (*Iru andre-andereñoak -Agustiñe, Marga ta Mirari- sar bitez, eta zaldunekin elkar agurtzen asi bitez, banaka banaka gizarte apaiñetan oitura danez*)

AGUSTIÑE: Ez genuen uste ain aguro etorriko ziñate-nik...

MARGO: Bazkari-legea laister bukatu duzute...

D. KARLOS: Gure Mr. Simpsonnek zuek agurtzeko presa aundia bait zuan...

AGUSTIÑE: Gutaz, errira eldu orduko, gogoratu dalako eskerrak eman behar dizkiogu. Zerbait artuko duzute... whisky edo...

MR. SIMPSON: Ondo bazkalduta gatoz. Naikoa artu dugu ta zuek ikusteko irrikitzen nengon... *my ladies* (*Mirariri begiratuaz*) ta *darling girl*.

MIRARI: Zu beti *gentleman* eta limurzale.

MR. SIMPSON: Bai! Orixe! Andre ta nekastilla ederzale!

MARGO: Mr. Simpsonnek guzientzat badu itz leun eta lore...

D. KARLOS: Ez bakarrik itz eta lore... baizik erregali ta esku-erakutsi ederrik ekarri dizkitzute.

MARGO: Neri eskeñitako kokodril-larruzko zorroa gaingañekoa da. Ez nuan esan behar baiñan...

MR. SIMPSON: Orain bai. Emen beste bat bait dakart (*karpetatik atera ta Agustiñeri eskuratuaz*) ... zuretzat, Mrs. Amuategi... Suge-larruzkoa...

AGUSTIÑE: (*Artu nahi ezean*) Ez, ez, gehiegizkoa da... Zera...

MR. SIMPSON: Suge-larruak ikaratzen al zaitu ala?...

AGUSTIÑE: (*Artu ta begiratuaz*) Ez, baiña... Eskuzabalegia zera. Eskerrik asko!

MR. SIMPSON: Eskuzabal ta biotza zabalagoa maite nautenentzat! Uskeri bat! (*Algaraz*) Ja! ja! ja!

AGUSTIÑE: Nik zer eskeñi nitzaziteke? Whisky, Ginebra, koñaka... Kopatxo batzuek artuko dituzute... (*bazterrean dagon «bar»-armario batetik botilla ta ontzi batzuek ekartzera dioa*)

D. KARLOS: Millaesker etxekoandre. Ez zaite ardura!
Lehen esan dizut jan eta edan ondotxo egiñak gaituzula. Eta bereala Kontseju-billerara joan behar dugula. Ez da ala Mr. Simpson?

MR. SIMPSON: *No whisky!* patarririk ez! Burua argi ta biotza bero.

MARGO: Nik lagunduko dizut, Agustiñe (*bijoa etxekoandrearengana laguntzera*)

MIRARI: Mr. Simpson! Arriturik nago Amerikan jaioa izanagatik, zeñen ederki dakizun euskeraz mintzatzen.

MR. SIMPSON: Ama euskalduna bait nuen, Hiriart, eta Kaliforniko euskeldunen artean azia naiz.

MIRARI: Ara joan beharko dut nik ikastera ta bidez inglesa ere bai. Emengo monja-kolejioan ez digute ezer erakutsi-ta.

MR. SIMPSON: Elkarrekin joango gera, Mirari! (*D. Karlos ere andreak dauden tokira biltzen dala, Mirari ta Mr. Simpson bakarrik gelditzen dira erdian*) (*Sakaletik kajatxo bat atera Mirariri eskeñiaz*) Zuretzat, maite, kutun-erastun au aukeratu dizut, zorion-ekarle... Atsegin al zaizu?

MIRARI: Zoragarri da! (*Eskuan artu ta so egiñez*)

MR. SIMPSON: Au eramanez, urtebete barru ezkonduko zera.

MIRARI: (*Flirt antzean*) Eta zeñekin?

MR. SIMPSON: Zuk asma...

MIRARI: Ez didazu asmakizun txarra jarri, Mr. Simpson... Edozeiñek daki! Eskerrikasko nola nai, erastunarengatik. Bereala beatzen batean sartzera noa. (*Ezin asmatu*) Ontan ez, estuegia da; beste ontan, berriz, lasaegia...

MR. SIMPSON: Ortan dago ezkontzaren koska! Neurrian... dagokion neurria arkitzea.

MIRARI: (*Azkenik beatz batean erastuna ipiñirik*) Emen dator ondo! (*Pozik aztertuz eta amari erakutsirik*) Begira «mamy» zer nolako erastun disdiragarria eskeñi didan Mr. Simpsonek...

AGUSTIÑE: (*Eskuan dakarzkin botella ta ontziak maigañean utzi ta pitxia ederetsiaz*) Auxen da pitxi polita! Gusto oneko gauzak aukeratzen badakizu, Mr. Simpson...

MARGO: Ea ikusi! Ederra benetan! Azken modakoa! Ez da arritzekoa emakumezkoak txoratzea...

AGUSTIÑE: (*Kopatxo bana D. Karlos eta Mr. Simpsoneri serbituz*) Tira, kopatxo bana edango duzute...

MR. SIMPSON: (*Edanez*) Azkenengoa izan dedilla.
Topa!

D. KARLOS: (*Edanez*) Bai, zuen osasunerako! Kontsejura joateko garaia dugu.

MIRARI: (*Kopatxo bat artu ta edanez*) Nik ere zuen zorionera edatera noa! Topa, Mr. Simpson!

MR. SIMPSON: Nere zoriona?... Bi bider ezkondua naiz eta agian irugarren aldiz egitea izango da.

AGUSTIÑE: Ez zaizu damutu! Au gizona! Ameriketako gauzak!

MARGO: Emen ez dago ordea «diborziorik»!

MIRARI: Ez da beharrik ere Elizatik ezkondurik ez badago. Berezita naikoa du.

MR. SIMPSON: Ezkontzaren legeak nolako diran ondo dakizkite emakumezkoak... Nere aldetik...

D. KARLOS: (*Etenaz*) Mr. Simpson! Beste arazo batera etorriak gerala aaztu zaizu. Lantegiko Kontsejubatzarra bostetan. Eta zeatz, puntuan azaldu behar dugula.

MR. SIMPSON: (*Erdi berdoztuta*) *Punctuality! All right!* Itxoin ordea... (*sakeletik beste kajatxo bat atera ta Agustiñeri eskuratuaz*) Urrezko domiñe au Lierni zure alabarentzat.

AGUSTIÑE: (*Artutzeke*) Orrenbeste esku erakutziaz lotsaturik nago. Lierni aitarekin fabrikan arkituko duzu eta obe izango da zeorrek ematea.

D. KARLOS: Goazen bada... (*Abituaz*)

MR. SIMPSON: Zure esaneko naukazu! Gero arte! (*andreari burua makurtuaz*) eta agur Mirari (*belarrira zerbait esanez*)

MIRARI: Oso ausarta zaude. Hollywoodeko galaia dirudizu.

D. KARLOS: Goazen gizon! (*Mr. Simpson besotik elduta aterazten duala*).

AGUSTIÑE: (*Ateraño lagunduaz*) Gero «tea» artzera etorri zaitetze, garaiz bukatzen baduzute.

D. KARLOS: Zail izango da. Billera luzatuko bait da! (*bijoaz*)

AGUSTIÑE: Orduan guk bakarrik artuko dugu.

MIRARI: Tea emakumezkoekin bakarrik gauza soilla; moteltxo... limoirik gabea. (*Zapia astiro erori bedi*)

(Lantegi bateko «planing» ofizina ta buruzagien lantokia. Erdian mai aundi bat. Inguruan fitxero, idazteko makina, robot eta kalkulo tresnak; an emen eserlekuak; eta ormetan grafiko eta zenbait kuadro-irudiak).

(Markos eta bere alaba Lierni lanean diardute).

LIERNI: Bai aita! D. Karlos eta amerikanoak engañatu egiten zaituzte... Ez naiz batere pio... A zer nolako lagunak atera zaizkitzun!

MARKOS: Ez dakit, baiñan langille soil nintzanean orain baño lasaigo bizi nintzala... bai! Arestian Bankotik ots-egin didate kreditorik ezin luza dezatekela gaztigatuaz. Gure kontua saldo gorritz gañezka dagola ta berritzeko Amerikako etxearen firma behar dala.

LIERNI: Nik aspaldidanik susmo txarra artua daukat, aita. Beraiek jakingo dute, jakin, zer asmotan dabilzan. «Xantaje» itxura ematen diot...

MARKOS: Asieran, erruz irabazten ari giñala ta dirua parra-parra txautzen... Eta orain, berriz, milloiak galdu omen ditugu. Nola diteke hori!

Kontabilidadearen ezkutapenak ez zaizkit buruan sartzen...

LIERNI: Kontabilidadeari nahi dena agerrarazten zaio; ta gura aña kontabilidate egin ditezke. Gauza erreza da! D. Karlos eta Amerikarra bat egiñik bait daude irabaziak zurrupatzeko.

MARKOS: Egia esan, Kaliforniako euskaldun-amerikano hori ez zait beñere gogoko izan... baiñan Karlosek niri txarkeria egitea...

LIERNI: Okerragoa da, bai. Eta biek, amerikar «gans-ter» eta zure txikitako laguna, elkarren antzekoak dira!

MARKOS: Ez nuan sinistuko nere lagun Karlosek gaztetan nerekin «sozialista» izanak joku hori egin zezakenik.

LIERNI: Diruarengatik zer nahi txarkeria borobildu ta gero, gaztetako ideiak eta adiskideak saltzen dira...

MARKOS: Gaurko Kontseju-billeran gauzak argi ta garbi ipiñiko ditugu.

LIERNI: Ez da denbora asko gelditzen. Zure «kideak» laister etorriko zaizkitzu ta paper auek ikusten jarrai zagun (*paper eta agiri zenbait azterturik*)

MARKOS: Batik bat azken-balantzea ta Bankuko kontuak ikusmiratu behar ditugu. Simoneri otsegiozu. Onekin bakarrik dut konpiantza osoa... naiz nere sozioak «kokunista» dala esan.

LIERNI: Aiei bai, hori esatea komeni! Komunistak bañon pizti makurragorik bada bazterretan...

MARKOS: Simon mutil seriotzat daukat nik. Eta deitu zaiozu Kontsejuko karpeta-paper guziak ekarri ditzan.

LIERNI: Bai, aita! (*Barrengo telefono-urrutizkiña eskuan arturik*) Alo, alo! Bai... Ni naiz, bai! Simon datorrela Kontsejuko karpeta guziekin. Aditzen? Bai! Eskarrikasko! (*Urrutizkiña bere lekuan utziaz*) (*Aitari*) Bereala datoz.

MARKOS: Ea garbitasuna egiten digun.

LIERNI: Egia dan bezela, garbi adieraziko dizu eta bai langilleen artean dagon asarrea azaldu ere.

MARKOS: Hori behar dugu! Dirua galdu ta gañera langilleekin asarretu! Nere sozio diralakoak entzungo dizkidate bereak eta bost! (*Berotuaz*) Amerikanoak Viet-Nahmen dagola uste badu oker dago. Bere Kaliforniara bijoala! Eta Karlos, adiskide nuana, arropuzkeriaz saltzaille eta etsai biurtu bazait, nerekikoa egin du! Biek

besotik elduta kalera jaurtiko ditut, naiz «Amerikan-Basque Mechanical» soziedade onek kiebra jo.

LIERNI: Baretu zaite aita, ez galdu bururik. Otz-otzean erabakiak artu behar dira.

MARKOS: Amerikanoak uste du azpilanez eta diruz guzia erosi ta, menderatu ditekela. Ortan ez du batere ajolarik. Eskuzabal itxurez, kapitalismo arrotza, emengoa baño ankerragoa duzu. Nola, edo ala berea egin...

LIERNI: Behekoak zapaldurik. Baiñan langilleok susmoa artu dute, amerikanoaren berri badute ta huelgara joateko gerturik daude...

MARKOS: Ez dedilla orrelakorik gerta... Hori ez!

(Une ontan Simon barrengo atetik agertzen da galtzarbean paperez betetako karpeta dakarkiala).

* * *

SIMON: *(Sartuaz)* Arratsalde, on! Emen nazute esku-bete paper eta agiriz. Balantzeak zama astuna

du, numeroz beintzat. (*Karpeta mai gañean utzirik*)

LIERNI: Ez da orrenbesteraño izango, Simon.

MARKOS: Ongi etorri! Zure beharrea gera gure kez-
kak arintzeko gauzak garbi ikusiaz.

SIMON: (*Paper eta agiriak nagusiari erakutsiaz*) Diruz,
arin ezik, urri gabiltzala agirian dago: utsean
edo!

MARKOS: Bankuko kontuak dute inportantziarik geie-
na; eta zordun eta artzalleen zerrendak... Auek
dira Kontsejo batzar aurretik aztertu behar ditu-
gunak. Eseri gaitezen arretaz begiratzeko.
(*Gizonezko biak lan ortan diardute*)

LIERNI: Nik bitartean nere ofizinan karta batzuek
bukatu behar ditut eta uzten zaituet. Or izango
nazute (*Bijoa*)

MARKOS: Ederki! Dei egingo dizugu!

SIMON: (*Paper bat eskuan artuaz*) Emen duzu Balan-
tzea: Goikoa Aktiboa; behekoa Pasiboa. Ots!
Duguna ta Zorduguna. Eta ondorengoa giltza!
Zera...

MARKOS: Egia aitortzeko, orrenbeste lerro bata bes-
tearen aldamenean oso ulergaitz zaizkit.

Batzuek eskuian, besteak ezker aldean eta biak berdin.

SIMON: Orrek ez du garrantzirik... Eskuikoa ala ezkerreko, biak gezurrezkoak dituzu, gutxi gora beherakoak. Emen ajoladun giltza, irabaziak ala galerak geiago izan diran ala ez jakitea da.

MARKOS: Emen milloi batzuen irabazia azaltzen da bada...

SIMON: Bai, guzia artuta, oro barne. Naaste-borrastezikiñean, «bruto» deritzaiena. Irabazi «astoa».

MARKOS: «Asto-lana» nik egin dedana... Ez dut ezer konpreni. Orregatik ugezaba baño lagun bezela galdegiten dizut. Zuri zer derizkiotzu? Egia esaidazu!

(Paperak baztertuaz).

SIMON: *(Une batez isildu ta gero)* Bada, nagusi... egia esan behar badizut, balantze hori esku-joku bat besterik ez duzu. Eta ez joku garbirik eta gutxiago ere! Ezen korrituak dirala, amortizazioak dirala ta gero «royalties» ordaindu beharra...

MARKOS: Zer da royalty hori?

SIMON: Zer izango da! «Errege-petxa» amerikar etxeak patentearengatik kentzen duana. Obe da errepublikano izatea.

MARKOS: Zer gelditzen da bestenaz? Irabaziak pikotarra doaz orduan! Jakiña.

SIMON: Bada garbi Bankoaren Kreditoko kontua eraberritu behar duzutela sozio bakoitzak bina milloieko zorra izenpetuaz.

MARKOS: Nola nahi duzu nik dirutza hori ordain dezadan?

(Gero ta estu ta urduriago).

SIMON: Ez baduzu erantzuten amerikanoak zure zatia jasoko du ta berak geldituko dira jaun eta jabe.

MARKOS: *(Eserlekutik jeiki ta asarre antzean batetik bestera dabillearik)* Asieran eman zidaten dirua jana dut aspaldi. Obeto esateko, etxean, ama-alabak ta seme ondartzalleak txautu dute. Eta ditudan akzio-paperak saltzeko balio ez badute, zertarako ditut?...

SIMON: Bolsan ez dizkitzute artuko ez! Eta D. Karlosek ere ez! Amerikanoekin bat egiñik bait dago!

MARKOS: Bai, susmoa artua neukan. Orregatik joko zikin ortatik alde egitea obe dut. Nere zatia saltea, soziedadetik irtenik.

SIMON: Okerrena duzu, ordea, auzitara joan beharko duzula ta uzten baduzu, uskeriren bat emango dizutela.

MARKOS: Berdin zait kale gorrian uzten banaute ere! Lan egiten badakit. Langillekin elkartu nahiago dut eta ez lagun izeneko kapitalista maltzurren artean ito! Ni betikoa nazu, sozialismo zintzo baten aldekoa.

SIMON: Nere laguntzarik ez dizut ukatuko, baiñan kapitalismoaren gaitza ez da sendatuko gizarteko oñarriak aldatu arte. Orain bertan fabrikan istillu ona dugu.

MARKOS: Zerbait entzun dut. Eta esaidazu, egia al da langilleak oso asarre daudela eta neregatik gaizki esaka? Miñik aundiena ematen didana orixe da. Ez bait zait aaztu nagusi baño lehen beargin soil bat izan nintzala...

SIMON: Huelga susmurrak dabilta, bai, prima-sariak kendu ta peoiak kalean uztera zoaztelako.

MARKOS: Enpresa gaizki badoa ta irabazirik ez bada-go, nundik sortu guzioi ordaintzeko aña diru?

SIMON: Dagon lekutik artuta, matxinadazaleak diotenez; edo-ta lan eralgintza aldaturik, Enziklikak esaten duten bezela. Nor du arrazoi, Mao-Tse-tungek ala Aita Santuak?

MARKOS: Ugazaba izan ta gero ikusten da ezin eman ditekela sindikatuek eskatzen duten guzia... Ortan dago koska!

SIMON: Ez koska bakarra, koska asko baizik...

MARKOS: *(Bizi gartsu)* Gizonetik gizonera gere langilleai itzegingo diet nere gogo ona ikusi dezaten. Goazen! Paperak ikusirik dauzkagu. Kontseju aurretik langilleak zer dioten entzun nahi dut. *(Fabrikako ateruntz abiturik)* Ez ditezela oporre-ra joan. Itxoin dezatela. Lagun nazazu sindikatoen ordezkariengana!

SIMON: Bai, lagunduko zaitut, baiñan ez dakit ez ote dan berandu izango.

MARKOS: Goazen aguro!...

(Bijoaz fabrikara daraman atetik).

* * *

(Unetxo batean antzeztokia utsik gelditzen da. Laister ordea, telefonoaren txintxarri-otsa luzaro entzungo da eta Lierni alboko langelatik deiari jaramon egitera azaltzen da).

LIERNI: *(Urrutizkiña eskuan arturik)* Alo! Alo! Bai!... Bai, jauna!... Ez... baiñan Kontsejua dute ta zai gaude! Bai! *(Norbaitzuek badatozela oarturik)* Itxoin! Itxoin! ez eten! Oraintxe ote datozen nago... Bai! Emen dira! *(Mr. Simpson eta D. Karlos sarturik)* *(D. Karloseri)* D. Karlos! Kantauriko Bankoaren direktorea da eta zure galdea egiten du...

(Mr. Simpson eta D. Karlosek itzekin baño geiago buruekin Lierniri agur egingez).

D. KARLOS: Banoa! *(Telefonua eskuan arturik)*

MR. SIMPSON: Agur, telefonista!, isilik egon beharko!

D. KARLOS: Nor da?... Bai! Ondo, zu ere bai?...: Eskerrikasko!... Ez... ez! Ez dugu ezer erabaki!... Bai... Bai! Orain Kontsejuan gai ortaz jardungo

dugu... Kreditoa?... Bai! Sei milloikoa?... Bai, bai! Jakiña!... Orduan bigar goizean joango gera Bankura zu ikustera... Bai noski... Ongi da!... Esango diet!... Bigar arte, beraz... Bai! Besarkada bat, adiskide! *(Bitarte ontan, Mr. Simpsonsnek Lierni ateratzea zoala ikusirik, keñu ta iminzioz bertan geldi arazi nahi du, baiñan alperrik, alde egiten bait dio)*

D. KARLOS: *(Telefonoa utzitakoan)* Kantauri Bankoko direktorea zan. Epea bete dala ta Kreditoa berriztatzeko arazoa zuan. Hori da larria!

MR. SIMPSON: Europako Banko zirtzillok ez dakite itxoiten. Ez dute aundi ta luze ikusten. «Morgan-Bank»ekin lan egiten oiturik gaudenok beste tratu bat merezi dugu bada...

D. KARLOS: Bigar arte itxoin dezala esan diot... Eta Kontsejuan zer erabakiko dugun ikusita joango gatzaiola ikustera.

MR. SIMPSON: Bai gizon!... Ez digute uzten neskatxai lasa begiratzen ere! Markosen alabak biek ditugu bikain! Aita baño atsegiñago zaizkit. Lierni au izutigoa izanagatik, Potosiko urrea balio du. Aita nun duan galdegitera noakio! Beste enkar-

gu bat ere badut berarentzat. (*Alboko gelaruntz abituaz*) Lierni!...

D. KARLOS: (*Geldi erazi nahiez*) Orrekin zabilta kontuz. Ez bait da bere ama eta aizpa bezelakoa...

MR. SIMPSON: Ain zuzen ordea, bestei bezela ekarri didan erregalia, eskuratu behar diot. (*Atetik*) Lierni! Andereño! Zatoz poxi bat!

(*D. Karlos mai-gañean dauden paperak aztertzen ditularik*).

LIERNI: (*Agertuaz*) Arratsalde on jaunak! Zerbait behar al zenduten?

MR. SIMPSON: Zatoz bai! (*Lierni sartu ala bazter batera eramanez*) Bada, andereño, nik... (*sakeletik kajatxo bat jalki ta eman nahiez*) Amerikatik ekarri dizudan urrezko gurutze au eskeñi gura dizut...

LIERNI: (*Uzkur egiñik*) Eskerrikasko jauna, baiñan ez dut onela jaun ezkondu batengandik esku erakutsirik artzen...

MR. SIMPSON: Ezkondua ezik, dibortziatua ere bana-go, emakume.

LIERNI: Ainbat gaiztoago jauna. Emen ez dugu orrela-ko oiturarik...

D. KARLOS: (*Izketaldia eten nahirik*) Badakizu (*Simpsoneri*) emen katoliko-ekintza eta Mariaren alabak...

MR. SIMPSON: «Legion of Mary» zer dan badakit, bai. Ni ez nazu noski Kolonen zaldun eta ezta Spellmann kardinalaren adiskide, baiñan gurutze onek (*itxia erakutsiaz*) ederki disdira dezake zure kolko ederrean deabrua uxatzeko!

LIERNI: Tokia ere aukeratu diozu, baiñan eskerrikasko, ez da neretzat egokia...

D. KARLOS: Ain gogo onez eskeintzen dizunez ar zaiozu, Lierni. Eta eraman nahi ez baduzu sal zazu dirua pobreaki emanaz.

MR. SIMPSON: Ederki asmatua! Amerikanoaren «kari-tas»! Ja, ja, ja!

LIERNI: (*Par egiñez*) Orrela baldin bada, artzen dizut «*thank you very much*» esanez! Millesker!

D. KARLOS: Ori eskutik ogeitamaika egitea da.

MR. SIMPSON: *Pretty one!* Polita jokua! Orain aita nunduzun jakitea komeni zaigu lanari jarraitzeko.

D. KARLOS: Bai, Lierni, mesedez gaztigatu zaiozu emen gaudela, Kontsejuari asiera eman dazaio-gun.

LIERNI: Ez da urruti. Oraintxe noa gaztigatzera. (*Bijoa*)

* * *

D. KARLOS: (*Bekoskoz*) Mr. Simpson! Basque-American lagunarteko buruzagi jauna; ez gaude astirik galtzeko. Ziri ederra sartu dizu alabak. Orain guk aitari jokua egiteko garaia dugu. Eta Markoseri argi eta garbi au esatekoa: Bankoko kreditoa berritzeko bi milloi jarri ditzala, edo ta bestenaz Soziedadetik kanpora geldituko dala.

MR. SIMPSON: Hori ostokoa ematea da. Football jokuan ainbestean, baiñan negoziotan beste bide leunagoak badira... gu nagusi gelditzeko...

D. KARLOS: Niri bat edo beste berdin zait. Ez luzatze-kotan! Bankoak...

MR. SIMPSON: Bai, entzun dut, ez duala luzapenik eman nahi...

D. KARLOS: Ez Bankoak eta ez langilleak... Eta okerre-na, auei eskatzen dutena ematen ez bazaie huelga dugula gañean.

MR. SIMPSON: Hori da ezin itxoiña! Ez Bankoak ta ez Sindikatoak... Munduko bi indarrak: dirua ta lana...

D. KARLOS: Errua Markosek du langilleai ezin eman zaiena agindu zielako. Onela «kiebrara» goaz...

MR. SIMPSON: Orrek ere badu irtenbidea: lantegia itxiko dugu, ta Bankoa fabrikaren jabe geldi dedilla.

D. KARLOS: A zer nolako aterakaia! Ta gero zer?

MR. SIMPSON: Bada gero... geronek... lantegi osoa merkeago erosiko dugula... Bankoarendik... Sociedade berri bat egiñez.

D. KARLOS: *(Bat batean ideiaz jabeturik)* Aizu!... amerikanoak oso aurreratuak zaudete negozio kontuan! Ez da taktika txarra, zuena... Baiñan isildu gaitezen *(norbait badatorrela oartuaz)* Markos ote datorren nago. *(Eseriaz)* Paper auek aztertu itzagun!

MR. SIMPSON: *(Au eserlekuan jarririk)* Paperak, pape-
rak! Paper busti ala paper erreak, biek alatsu!

(Paper azterketan; diardutela Markos sartzen da. Erabat naigabeturik, burua eskuen artean dualarik. Une berean, lan-

*tegi barrundik, susmur eta zarata otsak
gero ta indartsuaga entxun bitez).*

MARKOS: Fabrikan zer gertatzen dan konturatuko ziñaten noski...

D. KARLOS: *(Adi adi entzunez)* Zer da barrendik dato-
rren iskamil doñu hori?

MARKOS: Zer? Langilleak lana utzi ta kalera ateratze-
ra dijoazela. Alperrik izan dira egin ditudan ale-
giñak guk Kontsejua bukatu arte, gutxienaz,
itxoin zezaten. Aldez aurretik beren eskabideen
bayezkoa jakin nahi dute.

MR. SIMPSON: Iñork ez du itxoin nahi. Ez langilleak, ez
Bankoak, ez...

D. KARLOS: Bankoak ez beintzat! Nundik atera behar
dugu eskatzen dutena ordaintzeko dirua?

MARKOS: Dagon lekutik, diotenez. Ez nere sakeletik
beinik-bein... Ezin biziak... ezin itxoiña omen
dakar-eta... Huelga!

MR. SIMPSON: Langilleak baimenik gabe kalera atera-
tzen badira, guk atea itxiko diegu ondoren. Ea
nor aspertzen dan lehenago!

D. KARLOS: Goazen gauzak otz-otzean ikustera eraba-
kiak ar ditzagun. Kontseju-billerari asiera eman-

go diogu. Eseri zaite, Markos. (*Irurok mai inguruan eserita*) Eta zaude lasai!

MR. SIMPSON: Bai, gizon, egon patxaran! Gauzak antolatuko dira berez...

MARKOS: Ez dakit nola! Etxean semearekin naikoa ez dudala, orain lantegian ere naaspilla auxe!

D. KARLOS: Bai, berri txarrak, damurik, ez dira beñere bakarka etortzen. Ikus zazu onoko paper au! (*Bankoko agiri bat erakutsiaz*) Auxe dezu makurragoa! Bankoak ez digu kreditorik luzatu nahi...

(Une ontan, zarata, oiu ta iskamilla ozenago ta bertago entzun da. Lantegiko sirena ala «turuta» dalakoa «Uuuuuu... Uuuuuu... Uuuuu» jotzen asten da. Dea-darren artean onoko auek: «Kanpora! Fuera! Gora huelga! Amerika! Kuku! Gora Rusia!» ta antzekoak entzungo dira. Iru nagusiak itzik gabe gelditzen dira une batean. Geienbat Markos, jota dago, ezertarako kemenik gabe, malkoai ezin eutsirik, beti eserita).

D. KARLOS: (*Eserlekutik altxata*) Entzuten al dituzute?

MR. SIMPSON: (*Au ere alkitik jeikiaz*) Bai, ez nazu gorra! Niri egiten didate! Ku ku! (*parrez*) Ja! ja! ja!

D. KARLOS: Langilleak kalera atera dira. Huelga! Fabrika gelditu digute! Legearen kontra!

MR. SIMPSON: (*Oiuka*) Guk itxi zagus lanategia! Egin zagus «Lock out»! ta kito!!

(Zapia arin-arin eror bedi).

IRUGARREN EKITALDIA

(Bigarren ekitaldiko etxe-barne ber bera agertzen da. Zapia altxatakoan, Xanti dago bertan bakar-bakarrik eta bazter batean dagon «secretaire»-armarioa arakatzen ari da. Kajoi batzuek idiki ondoren, auetako batetik sobre-estalki bat ateratzen du, diru-paperez beterik dagoana. Dirua dala oarturik, paper-zorroa jaso ta arin bere sakelean sartzen du. Ontan ari dalarik, Joxepa, etxe-barruko atetik zeletan zegoanak, begira jarri ta ots egiten dio).

JOXEPA: Zertan ari zera or?

XANTI: *(Bat batean gelditurik)* Zera... nere liburu batzuek billatzen ari nintzan.

JOXEPA: Hori ez da zure eskola-liburuak gordetzeko lekua! Orko paperak pakean utzi zazu, aitarenak dituzu-ta.

XANTI: (*Lotsagabe*) Eta aitarenak ez al ditut nere?...

Zuri zer ajola zaizu, gañera? Emen ez zera nes-kame bat besterik!

JOXEPA: Seme ondatzalle bat baño obe da neskame zintzo izatea.

XANTI: Kontu zarra duzu ori: Ebanjelioko ipuiña... edo. Orain denbora berritan bizi gera ta gazteak ere geren eskubideak baditugu.

JOXEPA: Besteenak errespetatuaz eta gurasoei lotsa gorderik.

XANTI: Lotsa?... zertarako? Horiek burgesen aurre-iri-tziak dituzu. Antigualeko oiturak.

JOXEPA: Menpetasuna, lanegite ta estudiatzea aspal-diko ta alperrikakoek badira, zurekin familiak laguntza ederrik badu.

XANTI: Familia?... Nere arreba Liernik naiko sermoi botatzen dizkit eta utz nazazu pakean. Zu ez zera nor!

JOXEPA: Premi gorrian guztiok arkitzen geranean, aitaren negozioak gaizki dijoazenean ...

XANTI: Ez sartzea zuan... kapitalista jendearekin.

JOXEPA: Dituzun urteekin ez zentzu geiagorik izatea gezurra dirudi.

XANTI: Zentzua? zertarako?... Laga neri «nere» bizitza egin dezadan. «Gogoia nola, zankoa ara». (*Ateruntz abituaz*) Etxean itotzen naiz eta automobillean egurastera noa! Boga, boga! Urrutira! ... (*Kaleko atetik laisterka bijoa*)

* * *

JOXEPA: (*Zer egin ez dakiala, txunditurik gelditu da. Bat batean susperturik, etxe barruko ateruntz joanez otsegiten du*) Markos! Lierni! Aguro!

MARKOS: (*Berealaxe azalduaz*) Zer gertatzen zaizu onela otsegiteko? Onezik al zaude ala?

LIERNI: (*Au ere larri azalduaz*) Deika ari ziñan, ezta?... Zerbait gertatu al zaizu? Zer da? Zer?...

JOXEPA: (*Erdi zorabiatuak eta zurbil*) Zer? Gauza onik ez! Zera... Xanti arestian igesi joana dala «secretaire» ortatik (*tokia siñalaturik*) paper pilla bat artuta... Ikusmiratzen zenbillela arkitu dut. Kargu artu diot eta arrazoi txarrak emanaz paper zorroa jaso ta gordeta igesi joan zait, nere esanari kasurik egiteka...

MARKOS: Bada, ziur asko, lapurretan ariko zan! Ea or gordeta neuzkan diruak oztu dizkidan (*Secretai-*

re-armaioruntz joanez) Ikus dezagun! (Miatzen asirik)

JOXEPA: Ez nuke ezetzik esango.

LIERNI: Ez zan hori egitera ausartuko.

MARKOS: *(Secrétaire araktu ondoren)* Au dana naspi-llaturik dago; kajoi guziak idikiak. *(Oiu egiñez)* Bai! Nere diru-sobrea falta da! Lapurra! ez bestena!

LIERNI: Ondo ikusmira zazu, aita. Beste nunbait gordea izango duzu. Onenean...

MARKOS: Ez dago bere lekuan! Dirua nun gorderik neukan asmatu du, mutil deabru orrek! Nola ordea?...

JOXEPA: Ez zan lenengo aldia izango billa zenbillena. Beldur nintzan, bai, ikusi dudalarik.

MARKOS: Eta ez al diozu ezer esan? Nola utzi diozu joaten?...

JOXEPA: Esan?... Baita erritan egin ere, baiñan alperrik! Edozeiñek geldi arazten zuan. Bereak aundiagoak! Eta itzez iraindu ta gero, alde egin dit.

MARKOS: Nora joan ote zaigu?

JOXEPA: Ez dakit, baiñan urrutira dudarik gabe. Itxura zuanez, kanporako bezela jantzita zegon...

LIERNI: Amerikanoaren autoa artuta Bilboruntz abiturko zan. Hori du jostaillu!

MARKOS: Jakiña, dirua gastatzera. Ez daki besterik. Etxeko beharretarako gorderik neuzkan azken amar milla duro! Gureak egin du! (*samintasunez*)

LIERNI: Ala baldin bada, negar-malkoekin ez dugu ezer aurreratzen. Ez da urruti izango naiz amerikanoaren «Pontiac» berrian joan bada ere. Laister arrapatuko diogu azterrena atzetik joanez. Kalera noa ea norbaitek laguntzen ote naun (*abituaz*)

MARKOS: Zoaz, zoaz, Lierni! ni ez naiz ezertarako gauza ta.

JOXEPA: Ni gutxiago, berriz.

LIERNI: Bai, zuek geldi zaitetze emen. Ni banoa... ta lenengo poliziari parte eman eta jakin araztera. (*Arin, arin bijoa*)

JOXEPA: (*Negarrez eta erdi zorabiatu*) Au da naigabea! Ez nion emendik ateratzen utzi behar! Ai ene!

MARKOS: Zoaz oiera, Joxepa! Itxura txarra artzen ari zera! Ezin bait zera zutik egon! (*besotik eutsiaz*)

JOXEPA: Arritzekoa al da? (*Kezkaz gaiñezka*) Atea itxi behar nion, baiñan, nola?... nagusiaren semea-ri? Gozoa jarriko zitzaidan!

MARKOS: Ai koitadue! Guri salatzeaz aski egin duzu. (*Joxepa besotik maiteki elduta barneruntz darama biok ezkutaturik*)

JOXEPA: Ai ene, Markos!

* * *

(Unetxo batean antzeztokia iñor gabe gelditzen da. Berealaxe, ordea, beste ate batetik agertu bedi Agustiñe).

AGUSTIÑE: Emen izketan eta jardunean ari zirala irudititu zait... Eta ez dago iñortxo! Lurrak jan al ditu? (*Otsegiñez*) Markos!... Lierni!... Joxepa! Nun sartu zerate?... (*alde guzietara so egiñez*).

MARKOS: (*Berriz agerturik, bekokia illun*) Emen nago, bai. Eta ez zu bezin lasai.

AGUSTIÑE: (*Senarrari begiratuaz*) Jaso zazu buru hori, gizon! Ez duzu orrenbeste estutu behar. Fabrika itxi dala?... Idikiko duzute berriz. Negoziak aldi txarra duala?... Laister zuzenduko da Mr. Simp-

sonek agindu duanez. Bitartean... zerekin bizi ba dugu...

MARKOS: Ez da fabrika ta negozioa bakarrik gaizki dijoazenak, famili guzia baizik. Eta zu, etxeko-andre... pikopean zaude...

AGUSTIÑE: Eta zer nahi zenduan egin nenzan?

MARKOS: (*Samintasunez*) Semea ez ain gaizki ezi ta bigunkeriaz alperrik galdu izan...

AGUSTIÑE: Orain... nik al dut erru guztia?... Gogorke-rian ezitakoak ez dira obeak ateratzen...

MARKOS: Ez, e?... Zuk ikusi. Oraintxe zure seme kutun hori «secretaire» ortan (*mueblea señalatuaz*) gorderik neuzkan amar milla duro ostuta igesi joana da.

AGUSTIÑE: (*Bat batean txundituta ta eskua bekokira eramanez, naigabez eseritzen dala*) Ez da egia izango! Beste nunbait gordeak izango dituzu. Ondo miatu al duzu?

MARKOS: Berak bai ederki miatu ditu bazterrak ni eto- rri aurretik... Ez du ezer utzi. Etxean txanponik gabe gaude.

AGUSTIÑE: Etxeratu dedinean garbitasuna egindo da. Azalduko al dira diruok!...

MARKOS: Bizitzeko aien zai bagaude... gerria estutu beharko dugu, eskean asiaz.

AGUSTIÑE: Orretarako daude Bankoak, dirua aurreratzeko.

MARKOS: Ez genduen orren beharrik zuk semeari emandakoak eskuan bagenitu, azkenik kolpe txar au bururatzeko.

AGUSTIÑE: Gaztetasunaren makurkeriak dituzu. Xantik biotz ona du, bide onera itzuliko da ta urteekin, baita zentzatu ere.

MARKOS: Bai, gu ondatu ta ilda gero! Ez dut geiago aren berririk jakin nahi. Semea bukatu da nerezat. Eta baita ere Karlos, bere emazte ta famili guzia...

AGUSTIÑE: Adiskide kutunena Karlos hori zenduan bada...

MARKOS: Beñere ezagutu izan ez banu ainbat obe! Amerikano soziedadean ark sartu nindun; ark ugazaba egin, azkenean zorpean ta zikindua uzteko. Bera, aldiz, or dabil ez esku garbiz, baiñan bai sakela beteta...

AGUSTIÑE: Asiera onak izan zenituen eta aren asmoak ez ziran txarrak, Mr. Simpsonnek laguntza geiago eman izan balu...

MARKOS: Ez, amerikanoak joku garbiago egin digu. Agindutako patente ta dirua ere ekarri zizkigun. Kapitalaren korrituak eta irabaziak ateratzera zettorrela ez zigun beñere eskutatu. Ipar-amerikako tankera ezaguna da, eta onek ez gaitu atzipetu...

AGUSTIÑE: Bai, orain ere ala dio, berriz ere fabrika zabaltzeko gerturik dagola.

MARKOS: Ez nere laguntzarekin! Berak bakarrik egin dezala gogorik ta dirurik baldin badu... Lanegi-teak ez dit beldurrik ematen. Lehenago ere nere izerditik bizitzen oiturik nengon...

AGUSTIÑE: Nagusi bezela oituta gero besterik da. Orain askozaz diru geiago behar dugu.

MARKOS: Nik bada-ezpada, or gorderik neuzkanak, nere lanez, nekez aurreratuak... semeak ostuta eraman dizkigu! Azkenekoak ziran!

AGUSTIÑE: *(Negarrez)* Ez zaidazula gogora arazi, ezin sinistu dut-eta. Entzuteak bakarrik gaxotzen nau! *(berriz negar-zinkuriñez)*

(*Senar-emazteak isilune garratzean elkarri begira gelditzen dira*).

MIRARI: (*Etxe barrutik sartu ta amaren malkoak ikusirik*) Zer gertatzen zaizu amatxo?...

AGUSTIÑE: (*Malkoak txukatuaz*) Ez da ezer...

MARKOS: (*Zakar*) Ezer baño geiago, nik uste, ta... (*Mirariri*) zuk ere jakitea komeni da. Ez zera aur bat...

MIRARI: (*Amaren itxura ta aitaren begiratu zorrotzaz zerbait izututa*) Gaxorik al zaude mamy? Ongi ezik?... Zerbait ekartzea nahi al duzu?

AGUSTIÑE: (*Susperturik*) Ez, ez, utsa da, ezer gutxi! Xantik eman didan naigabeaz bazkaria gatzitu zait.

MIRARI: (*Amari musu eman eta maiteki eskuakin bekoki ta aurpegia laztanduaz*) Kamomilla kati-llutxo bat artuko duzu... Prestatzera banoakizu...

AGUSTIÑE: Ez, ez, zaude. Orain ez, pasa zait...

MARKOS: Zure amaren ongi-eza ta etxe ontako gaitzak ez dira «tisanarekin» sendatzen. (*Alabari*) Eta zuk... gertatutakoaren berri jakin behar duzu, gure alaba zeran ezkeru...

MIRARI: Ez badidazu garbiago ta... argiago adierazten... Ez dakit itzik ere.

MARKOS: Ez e? ... Zure anai Xantik or secretaire barruan gorderik neuzkan diru guziak lapurtu ta igesi joan dala. Besterik ez! Etxetik alde!

MIRARI: *(Ajolakabe)* Gastatutakoan etorriko da, bai...

(Amak, keñuz, isil dedilla adieraziaz).

MARKOS: *(Asarre)* Ergela ez bestena! Etxean aizez biziko gera! Jan nahi badugu, zuk ere, or nun-bait, lanegiten asi beharko duzu. Jakin zazue, ni ondaturik nagola. Zuek kontuak atera ta ogi billa joan!

MIRARI: Etxetik bidaltzen banazu, kanpora joango naiz, neskame bederik... edota aur-zai... Ala... neska-kaskariñ! Orain bertan gañera!... *(histeriko-antzera)*

AGUSTIÑE: Ez zazutela aita-alabak gauza ain estu artu. Ezta gure larria orrenbesterañokoa!

MARKOS: Nik ez ditut seme-alabak etxetik jaurtiko, baiñan bai lan-egitera behartu, bizimodua irabazi dezaten. Ez neri dirurik eska, ez daukatelako! Eta are gutxiago alper eta buru arroak man-

tentzeko. Beraz... (*Mirarik negarrari ematen dio*)

AGUSTIÑE: Markos! ez zazula orrela mintzatzen jarrai! Semearekin naigabez aski dugu-ta...

MARKOS: Ez, ez dut jarraituko! (*Bat batean etxe barneruntz abituaz*) Esan behar nuana esan dut (*bijoa*).

* * *

AGUSTIÑE: (*Umilki, erreguka*) Baiñan, Markos! Ez orrela jarri! (*Ondoren dijoakiola*) Gauzak antolatuko dira. Ez duzu guzia ain beltz ikusi behar. (*Mirariren aurretik igarotakoan oni aolku emanaz*) Zu geldi zaite emen. Eta zaude lasa, bururik galdu gabe, kanpotik etxera norbait ba ote datorren ere! (*Bijoa*)

MIRARI: (*Bakarrik gelditu ala, malkoak txukatzen ditu ta ispillu aurrean bere burua begiratuaz, orraz-kerak ta jantzia antolatzen asten da, ezpañak lapitzez gorriturik eta masailai ikutuak egiñez, edertasun kariaz... Ontan ari dalarik, ateko tin-break otsa joko du -triiin... triiin. Joxepa barrendik agertuaz atea irikitzero dijoa*).

JOXEPA: (*Atea zabaldutakoan etorri berriari*) Bai jauna! Sar bedi aurrera! (*Joxepa berriro etxebarrura dijoalarik, Mr. Simpson etxera sartzen da, esku-kartera ta guzi, beti bezin ez-ajola, lasai ta zalapartatsu... erdi berdoztuta baletor antzo...*) Alo, alo! (*Mirari agurtuaz*) Miss Mirari! *My dear!*... Miraria da bai! *shoking!* zu bakarrik arkitzea... Askok poztutzen naiz...

MIRARI: Bada, gure etxea ez dago poz eta jolaserako... Anaiarekin naigabe aundi bat izan dugu ta gure aita asarre bizardago...

MR. SIMPSON: Zure guraso, zure anai-arreba ta zunik alaituko zaituet dakarkitzuedan berri onekin. Joku garbia! bai *Fair play*.

MIRARI: Gure aita ez duzu aldarte onean jarriko, ezta amorrai arrantzara eramaten baduzu ere! Fabriketan izan duzuten istilluek ezkeroko bekozko illuna dabilki.

MR. SIMPSON: Diruarekin kopetilluna argituko zaio, bada lantegia berriz zabaltzeko baimena Amerikatik artu dut...

MIRARI: Berri onak ditugu orduan?...

MR. SIMPSON: Bai, baiñan, nik, lehenago, zurekin, Mirari, maite zaldun-andrekiko tratua egin behar dut, *gentleman agreement* tratua...

MIRARI: Losintxakerian al zatoz edo...?

MR. SIMPSON: Ez, *my love!* zuganako... (*Mirariren eskua arturik*) amoriyo ta maitakeria... Nik zurekin ezkondu nahi dut. (*Arritu zamar Mirarik atzeruntz egiten du eskua libratuaz*) Ez al nazu gogoko?...

MIRARI: (*Amore emanaz*) Onela bat batean... Ez gaude zinean. Emen gertatu diranak gertatuta... Ez nuan olakorik uste.

MR. SIMPSON: Oitutzen joango zera... (*gerritik eldu nahiez*)

MIRARI: (*Uzkur aldenduaz*) Zertara oitu?...

MR. SIMPSON: Nere andre-gai izatera! ... (*atzetik darraikiola*) Ez zaizu ezer faltako: diru, jantzi, pitxi...

MIRARI: Eta beste zure andrearekin zer egin behar duzu?... Emen ezin diteke ain errez ezkondu!

MR. SIMPSON: Ez dio ajolarik! Amerikan ezkonduko gera ta Kalifornia zoragarrian gelditu bizitzen...

MIRARI: Nun?... Hollywooden?... Fama txarra dizu...
Dibortzioen kabia... Eta nere gurasoak ez dida-
te baimenik emango.

MR. SIMPSON: Baimena?... Guzia antolatzen da: bai-
men, paper, eta auzitegiko legeak...

MIRARI: Eta eleizako legeak zer?

MR. SIMPSON: Ortan ez nago oso trebe. Elizara gutxi-
tan joan oi bait naiz. Apaiz artean ezagun gutxi
ditut, baiñan limosnekin ate guziak irikitzen
dirala entzun dut. Ez da ala?...

MIRARI: Nik nere gurasoekin mintza aurretik ezin dizut
ezer agindu. Eta ez da au nere aitarekin itzegi-
teko unerik egokiena. Ez da aitatu ere. Ez naiz
ausartzen.

MR. SIMPSON: (*Berriz maitetsu eskua arturik*) Emaku-
mezkoak zerbait nahi duanean, azkenerako lor-
tzen du. Zu ez bazera ausartzen, nik itzegingo
diot zure aitari. «Alaba... al danean ezkontzen
bait da».

MIRARI: Eta gizonezkoak, aldiz... «nahi duzutenean»...

MR. SIMPSON: Ez beti! Ez da ain errez, baiñan zuk
nahi izan ezkerero...

MIRARI: Nere aldetik eragozpenik ez izanagatik, beste
nunbait daude trabak... Etxe barruan dugu

orain iskamilla... Eta nolakoa! Ixo!... Entzun?...
(*adi-adi barrundik datorren otsari*) Onuntz
datoz. (*Mr. Simpsonengandik bereziaz*) Gauden
isilik! Nere aita-ama dira... Zer gertatu ote da
nere anaiarekin?...

MR. SIMPSON: Gurasoak?... Ederki! Onela zure eskua
zuzen-zuzenean eskatuko diet.

* * *

MIRARI: Zaude isilik! Itxoin zazu! (*Agustiñe ta Markos
sartu bitez*)

AGUSTIÑE: (*Arriturik*) Zu emen, Mr. Simpson?

MR. SIMPSON: Zuei bixita bat egitera. (*Senar-emaz-
teak agurtu bitza. Markosek ordea arrera otsa
egiten dio*)

MARKOS: Garai txarrean etorri zera...

MR. SIMPSON: Bai, Mirarik esan dit zerbait. Eta nik
zurekin itzegin nahi dut... (*Markos eta Mr. Simp-
son alde batera baztertzen dira, bestean ama-
alaba daudelarik*)

MIRARI: Ama! Xantiren berri jakin al da?...

AGUSTIÑE: Lierni joana da billa ta etxera datorren arte itxoin egin behar. Ez dakigu gauza garbirik...
(*Solasean badarraite*)

MARKOS: (*Mr. Simpsoneri zakar*) Gaur ez dedala ezer jakin nahi esan dizut.

MR. SIMPSON: Bigar berandu izango da bada... Laister abioez abiatzekoa naiz eta...

MARKOS: Egin zazula bidai on! Eta laño ta odei tar-tean kontuz ibilli!...

MR. SIMPSON: Zuen etorkizuna... eta zure alaba Mirariren zoriona ere baditeke laño oien artean arkitzea...

MARKOS: (*Solasaldia zakar etenaz*) Bai! illargitan!
(*Aginduaz*) Mirari! lagundu zazu jaun au atera! Familiakoak bakarrik egoteko beharrean gaude-ta...

MR. SIMPSON: (*Zirikada jasoaz eta mindurik*) Atea nun dan badakit eta banoa! (*Ateruntz zapuztuta abiaturik, kartera aztuta utziaz*)

MIRARI: (*Zer gerta dan oarturik*) Au lotsa! Baiñan, aita!

AGUSTIÑE: Ez da gizalegezko jaun bat onela etxetik bidaltzea!

MARKOS: Lehenago bidali izan banuen, eta geiago agertuko ez balitz obe! *(Mr. Simpson kanpora dijoala ikusirik)*

AGUSTIÑE: *(Negarrari emanda)* Au lanbidea gurea!

MIRARI: Nik zer esango dut!

(Irurok urduri. Markos batetik bestera ezin egonik dabil... Agustiñe ta Mirari malkoak dariela).

MIRARI: Ama! Ez larritu! Gauza asko esan behar dizkitzut *(isilpean)* baiñan ez aitaren aurrean. Goazen barruko gelara *(ama-alaba bijoaz)*.

MARKOS: *(Unetxo batean Markos bere lekuan isilik dago ta geldirik. Alako batez berriz mugitzen asten da diolarik)* Naigabeak, bederen, gizonki jokatzen erakutsi dit! Bai, eta nere etxean jaun eta jabe izaten! *(Au esanez akituta, lorpean edo eseri bedi burua esku artean arturik. Ontan dagola, Simon sar bedi ta nagusia jota ikusita, arduraz mintzatzen asten zaio atetik)*

SIMON: Nagusi!... Ugazaba!...

MARKOS: *(Otsegiten diotela oarturik burua jasota)* Zu al ziñan? Zer zabiltz, Simon?...

SIMON: *(Total eta motel itzak ezin asmatu)* Bada... zera... nola... Badakizu. Lierni ta biok oraintxe etorriak bait gera...

MARKOS: Lierni!... Nun da nere alaba?

SIMON: Or barruan... amarekin gelditu da.

MARKOS: *(Berri-min)* Eta zer?... Zerbait jakin al da? Itzegin nahi ez duzula dirudi... Semearen aztarrenarik sortu al du? Ez neri ezer ezkutatu, gero!

SIMON: *(Beldur zalantzan)* Ez jauna... Bai jauna!... Zera, Xanti agertu da, baiñan ez dira berri onak!

...

MARKOS: Esan bada guztia, dan bezela! Nun da?...

SIMON: Bada, automobillean zijoala, amerikanoaren auto «Pontiac» aundi ortan...

MARKOS: Bai... zabalegiak dira gure bide estuentzat.

SIMON: Orregatik nunbait, eta laisterregi zijoala, Goiko Errotako zubian bazterra jo ta amildu da...

MARKOS: *(Izuikarez)* E?... Il dala?...

SIMON: Ez, ez, baiñan oso gaizki zauriturik atera dute ta orain klinikan dago.

MARKOS: *(Bere burua nahigabepean eserlekuan etziñik)* Ai, seme! Hori da lengoaz gain behar

genuena... (*Negarrez*) Aren bukaera ikusia zegon! Esaidazu, arren, nun du zauria, aita naiz eta!...

SIMON: Toki askotan, baiñan okerrena buruan omen du. Ezaguera galdurik dago.

MARKOS: Eta medikuok zer diote? Bizirik aterako al da?...

SIMON: Zer ikusi aundia dagola-ta, ezkor, pesimista daude...

MARKOS: Seme doakabea, bai, eta guraso errukarriak gera onela mutilla galtzen badugu!... Ene Jainkoa! Auxe da naigabea! (*Malkoak ezin eutsiaz*) Nun da Lierni? Nun?...

SIMON: Or sukaldean gelditu da, berri txarra amari pixkana pixkana ematen. Gaixotu ez dedin!... Ain du semea kutuna.

MARKOS: Itsu-itsuan maitea. Geiegi ere bai! Ez dakit zer gerta behar zaion. Eta ez ote dan obe zalan-tzan egotea baño guzia bat batean jakitea. (*Oiu samiñez*) Lierni!...

(Negarrari emanda berriz eseriaz).

SIMON: *(Isilune baten ondoren ateruntz joanez)* Lierni!
Atoz lehenbaitlehen!

LIERNI: *(Sartu ala, aitaren besoetara joanez)* Aita! Au
samiñaren aundia! *(Estu besarkatu ta malkoak
isuriaz)*

MARKOS: Gertaturiko ezbearra izugarria da! Simonek
esan dit... Nola ordea?... Bakarrik al zijoan?

LIERNI: Bai, bada... Amerikanoaren autoa artuta, Bil-
boruntz abitua zan... *(Jarrai eziñik)*

SIMON: Bilboruntz... Pagogarate portu aldera beintzat.
Andik aurrera ez dakigu zer nolako asmoak
izango zituan.

LIERNI: Bide hori artu zuala jakin genduanean, Simon
eta biok onen auto txikian atzetik jarrai geni-
tzaion, ea noa joana zan garbi jakiteko.

SIMON: Ez zan errez ua nere auto txikiarekin arrapa-
tzea. Aurrea artu bait zigun, ark ibilli oi zuan
abiaduraz... Baginjoazen bada eta...

LIERNI: Bat batean gutxiena uste izan genduanean,
Pagogarateko malda beheran, Errota aundiko
zubipean auto bat amilduta ikusten dugu...
Amerikanoaren «Pontiac» tzarra zala antzeman
nion... Simoni gelditzeko esan nion!

SIMON: Onek esan arte ez bai nintzan kontuan erori.

LIERNI: Gelditu bagera gelditu gera! (*Zinkuriñez*) Ua zan ikuskizun negargarria!

SIMON: An errekan autoa iraulia ta zapal-zapal egiña...

LIERNI: Hori gutxiena zan... An bidetik zetozten gizon bi ta errotariak iruron artean jasorik Xanti zekar-tela ezagutu dut. Bera zan. Korderik gabe...

MARKOS: Baiñan bizirik...

LIERNI: Bai, aita! (*Negar egin eta aita besarkaturik*)

SIMON: Autotik ateratzea kosta egin omen zitzaien, eta gero nik ere errotaraño eramaten lagundu nien. Arnasa artzen zuan eta onena klinikara ekartzea izango zala-ta nere kotxean etzinda poliki-poliki jarriaz an eraman dugu San Kristo-bal Klinikara, andik telefonoz otseginda gero. Antxen dago...

MARKOS: Gizarajoa! Zauri ta min aundienak nun ditu?

SIMON: Buruan eta ezkerreko anka ta iztarrean... Medikuek sendakintza oraintxe egiten ari zaie ta esatera etorri gatzaizkitzue. Operazioa egin arte obe etxeakoak aurrean ez egotea.

MARKOS: Bizirik ateratzen bada gaitz erdi.

LIERNI: Gero ikusi behar, ordu laurden bat barru edo, inyekzioak indarra galtzean, esnatzen dan ala

ez. Amari ez zaio esan behar ain gaizki dagoanik... Kolpe txar bat besterik ez dualakoan dago.

MARKOS: Nola nahi ere, semea ikustera bereala nahiko du joan...

SIMON: Ez zaio utzi behar. Eta (*barruko ateruntz begiratuaz*) onuntz badatorrela uste dut. Bera da, bai, Mirarirekin!

LIERNI: Aita! Zuk gizonki joka zazu. Sendo gauden bitzik ez bagenu bezela. (*Malkoak txukatuaz*) Ez maskuri!

MARKOS: Gauza banaiz bai. Etxe ontan zuk izan behar zenduen «gizon» ta ez zure anaiak. Ez neu!

*(Agustiñe eta Mirari sarturik,
oro zinkurik eta malko).*

AGUSTIÑE: (*Senarrarengana urbildu ta besakarturik*)
Markos! Zoritxarraren aundia! Xanti min arturik klinikan dago ta ikustera joan behar dugu. Bereala!...

MARKOS: Oraindik ez, Agustiñe, operazioa egin arte! Semea orrela ikusteak zirrada gaitza egindo lizuke. Noiz joan klinikatik gaztigatuko omen digute.

LIERNI: Bai, ama! Itxoin zazu. Klinikatik deitzean elkarrekin joango gaituzu.

MIRARI: Ni aurretik joan ninteke zuek emen geldituaz.

AGUSTIÑE: (*Histerismopean*) Ez, ez! Nik bereala ikusi nahi dut! (*Oiu ta garraxi egiñez*) Ai! Ene seme maite!... Nun zaude, nun?

MARKOS: (*Besotik eldu ta baztarrera eramanez*) Ez zaite orrela jarri, emakume!

LIERNI: (*Gurasoengana bilduaz*) Baiñan, ama! Baretu zaite! Laister joango gera Xanti ikustera. (*Agustiñe ezin bareturik daudela, telefono-deia entzun bedi ta bat batean zalaparta isiltzen da*) Mirari! (*aizpari*) Zoaz nor deitzen ari dan ikustera. (*Guziok telefono otsari adi-adi...*)

MIRARI: (*Urrutizkiña eskuan arturik*) Nor da?... Bai!... Amuategiren etxea... Bai... Klinika?... Bai! Eta zer?... Gaizki dagola?... Il dala?... (*Tresna utzirik*) Klinikatik deia zan... (*Trixte, samintasuna ezin gorderik*) Bagoazke...

AGUSTIÑE: (*Oiu samin bat zintzurtean lertzen zaiola, zinkurin eta eiagoraz gañezka, zutik ezin egonik erortzen asten da. Inguruan dauden Markos eta Liernik eusten diote. Simon ere laguntzera*

dator. Guzien artean silloi batean eser arazten dute. Agustiñek ea zirkiñik ez du ateratzen)

LIERNI: *(Otsegiñez)* Ama! Amatxo! *(Eskumuturra estutuaz eta beso ta korputza astinduaz)* Ezaguera galdu du! Arnas larria besterik ez zaio nabaitzen...

MARKOS: Biotzeko gaitzak joko zuan, infartoren batek... *(Eskumuturretik elduaz)* Ez diot takatekorik naibatzen. Medikoari otsegin dezaiozun! Aguro! Simon, zoaz!

SIMON: Aurrena etzanda oiean jarri dezagun! Arnasa artzen du-ta.

LIERNI: Onena oiera eramatea izango dugu, bai! Ea guztion artean! Joxepa! Oia presta zazu!

MIRARI: Nik telefonoz medikuari deitzera noakio.

*(Danak jabetasuna galdurik,
zalaparta bizia sortzen dute).*

JOXEPA: *(Agertuaz eta oso izututa)* Jesus milla bider! Zer da gaur etxe ontan? Orain etxeakoandrea gaxorik?

SIMON: Guztion artean oiera eramango dugu... Kontuz, e? Joxepa, burua jaso zaiozu. Nik gorputzari

atzetik elduko diot. Zuk aurretik, anketatik...
bai!

MARKOS: Kontuz, ordea, Lierni ta biok arretaz altxako
dugu.

MIRARI: Nik gerritik... *(Esan bezela, guziok egin beza-
te pizkana pizkana barneruntz eramanez)*

LIERNI: *(Aizpari)* Zuk utzi zazu! Zoaz telefonori medi-
kuari otsegitera!... *(Agustiñe ea ezkutatu dute-
larik, Mirari telefonora joana da eta zenbakia
beatzekin jarriaz urrutizkiña belarrira darama)*

MIRARI: Alo! Alo! Klinika?... Bai, Amuategiren etxea.
D. Pako bereala etorri dedilla, ahal badu!... Ez?
Bestela, D. Paulo. Ama oso gaizki jarri zaigu,
atakeren bat edo... Ez, gauza onik ez! Eta gure
anaia zertan da?... Bere senera ez dala etorri!!
*(Telefono tresna bat batean zintzilik utzirik eta
negar egiñez)* Ain denbora gutxian naigabe
geiago gerta al ditezke? Anaia zerraldo, ama il
zorian... Ni... umezurtz... Adur txarra! *(Malkoak
dariola eseri bedi burua kuskurturik. Ontan,
barruko atetik Joxepa ta Simon larrituta datoz)*

JOXEPA: Medikuari otsegin al diozu?... D. Pakori?...

MIRARI: Bai, Joxepa. D. Pako ez baldin bada, D. Paulo etorriko al zaigu. Klinikatik oso berri txarrak eman dizkidate.

SIMON: Angoak eta emengoak, oro bat! Onela jarrita ez dugu ezer aurreratzen. Ez jakin zer egin!...

JOXEPA: Nerekiko, etxekoandrea, zure ama, oso gaizki dago. Semearen ondoren amak ere il behar-ko ote du? Jainko maitea! Apaizari deitzera noa elizakorik gabe il ez dedin. *(Ateruntz joanez, Mirariri)* Eta zu, gaxoa, zoaz gelara ama bizirik ikusi nahi badezu, Lierni ta aitari laguntzera, jota daude-ta.

MIRARI: Zer nolako eguna gaurkoa! Goibela osoki!

(Etxe barrura doa, Joxepa kaleko atetik kanpora irtentzen dalarik. Simon bakarrik gelditzen da).

SIMON: *(Bere buruarekin gogoetan)* Nik emen zer egin nezake?... Itxoin... eta ez luzaroan. Gertakariak aguro bata bestearen gañera bait datoz... Familia zapaltzeko naiko ta geiegi dira ta ni ere azpian arrapatzen naute. Bizitzan, egia da bai, zirkunstanziak, ingurumaiak, agintzen dutela.

Ama ta semea bata bestearen ondoren akako dira! Erruki ditut! Ezbearraren aundia! Baiñan, nere barruan, benetan Markos eta Liernik ematen didate min! Lizardiren bertsoak gogora datozkit:

«Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miña...».

(Gogoetan dagola isil eta burua makurturik, Markos gelatik datorrela sartzen da. Simon ikusirik biotzmin aundiz itzematzen dio).

MARKOS: Simon!... Bakarrik utzi al zaituzte?

SIMON: Ez nagusi, zuekin bat egiñik nago ta biotzez zuen naigabea laguntzen zaituztet.

MARKOS: *(Erdi negarrez)* Eskerrikasko Simon! *(besaraturik)* Au da etxearen ondarena! Semearena aski ez zala orain nere emaztearen egoera larriak zanpa-zanpa egiten gaitu. Ez nago ezertarako. Ez dakit klinikara joan ala emen geldi...

SIMON: Ez nazu nor zuri aolkurik emateko. Gutxi dezaket, baiñan zuen atsekabea arindu al baneza-

ke... Ez zait aaztu naizen guzia zuri zor dizudala.

MARKOS: Nere samintasunaren erdian, zure itz oriek poz ematen didate...

SIMON: Ez nizkitzun esan izango aberats okitu ta ugazaba-goi mallan jarria ikusten zindudanean. Baiñan, orain, ezbehar eta oñazepean zaudelarik, zurekin bat nator... eta... etxekotzat ar nazazula eskatzera ausartzen natzaizu... geiegi ez bada...

MARKOS: Seme bat galdu dudanean, zer geiago espero nezake beste bat ohea irabaztea baizik?... Liernik gogoko zaitudala badakit...

SIMON: Ez da auxe gai ortaz jarduteko unea... Xanti zerraldo ta etxeakoandrea il urren dituzunean.

MARKOS: Zergatik ez? Gu bizi izateko oraintxe nago pozkario bearrean... Ez al duzu orrela uste?...

SIMON: *(Isilune baten ondoren)* Zera... *(Etxebarruko ateruntz begiratuaz)* Emen dugu Lierni!

(Lierni gelatik agerturik).

LIERNI: Ama obetoxeago dagola dirudi. Beste inyekzio bat sartu diot alkanfor olioazkoa ta arnasa lasa-

xeago artzen ote duan nago. Ez badu beste erasorik izaten iraungo du. Mirari an gelditu da oe ondoan zai...

SIMON: Medikua ere laister etorriko dala uste dut. Eta Joxepa apaizaren billa joana da...

LIERNI: Erretore jauna ez da urruti bizi. Onuzkero bidean da ta elizakoak artutakoan guziok lasago geldituko gera.

MARKOS: (*Lierni ta Simonen artean kokaturik*) Bitartean... zuek elkarrenganako duzuten zaletasuna da gelditzen zaidan argi izpi bakarra... Eta maitasun hori agertu dezazuten, nere baimena ez ezik nere borondate guzia oso-osorik ematen dizuet.

SIMON: Eskerrikasko nagusi...

MARKOS: Aita! deitu nazazu...

LIERNI: (*Lotsaz*) Baiñan, aita! Gauza orietaz mintzatzeko ordua ez da auxe, etxeko-andrea, amasemeak galduta negarrez gaudenean.

MARKOS: Zergatik ez?... Oraintxe da garairik egokiena... (*Lierni ta Simonengana urbilduaz besarkatzen dituala*) Bai, bai!... (*itzegiten ezin asmaturik*) Bai, bai! (*Samurkiro burua galdurik*) Berriz ere amorraiak arrapatzera joan al izango naiz...

LIERNI: Baiñan, aita! Txolintzen asi al zera?

MARKOS: Oraingo naigabea aztu nahi dut... atzoko zoriona oroiturik... bigarkoaz amets egiñez...

LIERNI: Gaurkoari eman behar zaio arpegia...

MARKOS: Ez naiz gauza...

SIMON: Lanean ondo gogorra izan zera bada...

MARKOS: Bai baiñan urteak, atsekabe ta ezbearrak biotz-bera egin naute... *(Bat batean Mirarik etxe barruko atetik izuikarez oiu egiten du: «Atozte! Aguro! Amari beste atake batek eman dio! Iltzen ari da!» Guziok zalapartan barneruntz abitzen dira. Liernik Simon geldi arazten du)*

LIERNI: Zu zaude emen, edota obeto apaizaren billa zoaz! Ea zertan dan Joxepa...

SIMON: *(Beste guziak etxe-barrura joan diralarik, kanpoko ate-tinbrea jotzen asien da, bat batean telefono-deia ere bai. Nora jo ez dakilla, telefono tresna artzera doa)* Zein da?... Bai, Amuategi-etxea... Klinika?... Ta zer? ... Il dala?... Xanti!... *(Tresna bere lekuan lagarik eta samin-tasunez)* Gureak egin du! Ez diet oraindik etxe-koei ezer esango. *(Kezkati ta goibel)* Albistea dugu auxe *(Ateko tinbreak jotzen dalarik eta Simon zalantzan dago zer egin ez dakiala)* Noan

atera ea berri oberik ote datorren... Apaiza edo... (*Bijoa ateruntz ta atea zabaldutakoan, Mr. Simpson agertzen da beti bezin ergel eta ajolakabe*)

MR. SIMPSON: Arratsalde on! Ja, ja, ja! Kartera billa nentorren. Au bait da iñun utzi behar ez dana (*Kartera jasoaz*)

SIMON: (*Berekikoz*) A zer nolako apaiza... Kaliforniako artzai amerikanoa! Garai txarrean zatoz...

MR. SIMPSON: Bai, berandutu egin zait, whisky batzuek edaten gelditu naiz-eta... (*Simon losintxa naiez*) Urrena konbidatuko zaitut whisky artzera... elkarrekin joango gera.

SIMON: Ezta vodka eskeintzen badidazure...

MR. SIMPSON: A bai! Ja, ja, ja! Orain gogoratzen naiz. Zu fabrikan komunistan aldekoa ziñan, eta beraz Amerikaren kontrakoa...

SIMON: Ez bat eta ez beste. Ezbearrak eta bizitzak erakutsi didate Amerikako U.S.A. eta Errusiako U.R.S.S. letra geienak berdintsu dituztela. Mozkor-edariak ere bai: whisky ta vodka... kapitalismoarenak...

MR. SIMPSON: Ja, ja, ja! Ez dago gaizki esana. Gu erri atzeratueta jendea irabazi araztera etorri oi gera.

SIMON: Dirua irabazi arazten mutillak zerate bai, baiñan ez gizonak irabazten... Ontarako jende xeharen ezaguera ikasi behar duzute. Anaitasuna, Justizia... Begira... ordu txarrean zatoz etxe ontara.

MR. SIMPSON: Zer bada?...

SIMON: Ez al dakizu gertatu dan emen?... Zure autotzar berriari zer gertatu saion?...

MR. SIMPSON: Nere «Pontiac» berriari? Nork eramandu?

SIMON: Xanti, Amuategi jaunaren semea, eta biak zubitik bera erori dira.

MR. SIMPSON: (*Asarre ta oiuka*) Nere «Pontiac» berria? Ezin diteke. General Motorseko kotxe ederrenarekin amildu?

SIMON: Bai, eta an gelditua da txatarra egiñik.

MR. SIMPSON: Ez dut sinisten. Banoa ikustera (*laisterka ateruntz abituaz*)

SIMON: Bai, zoaz emendik, edota bestela neronek bidaliko zaitut! Zure automobillaz bertan zijoan gizonaz baño geiago kezkatu zeralako. Jakin

zazu ordea zure «Pontiac» zirtzilatu bada... (*erdi negarrez*) Xanti il dala! (*Bat batean asarre bizian besotik elduta atetik kanpora jaurtiaz*) Zoaz etorri ziñan lekura! Zuen Amerika on bada... Amerika ku! ku! (*Au esandakoan, naigabepean bere burua etzaten du eserleku batean. Ontan, etxe barrutik Markos eta bi alabak malakoak dariela irten bitez*)

MARKOS: Simon! Nere andrea il da!... (*Simon au entzunez jeiki ta Markos besarkatzen du*)

MIRARI: Azkenean ezagutu gaitu ta eskua estutu dit...

LIERNI: Eta azken arnasa eman aurretik Gurutzeari muñ eman ez «Jesus» esanda il da!

MIRARI: Ama gaixoa! Nik zer egin behar dut orain?...

MARKOS: Guztiok egin behar duguna: benetako kristau bidean bizitzen ikasi.

(Isilunean, astiro-astiro oiala erortzen da)